

UZTARRIA

ZENBAKI HONEKIN BATERA

+ GUKA ALDIZKARIA

ESTHER LARRAÑAGA

**LANAREN
POZEZ**



INNOVA

AZPEITIA

MORTE KLIRING



Jose Artetxe 5 • 943026955

**MILAR
LARRAMENDI**

Etxetresna elektrikoak

**Cooking
& Chef**
SUKALDE GUNEAK

**dyson v8
animal**

XURGAGAILUA

Lehen 399 €

Orain 349 €



dyson ETXEAKE DITU MERKATUKO
XURGATZAILE ONENAK,
eta **MILAR LARRAMENDI**
BAKARRIK AURKITUKO DITUZU

Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • www.milar.eus



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak
etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



San Juan Auzoa, 16 • AZKOITIA • ☎ 943-85 21 10 • www.biyona.net



UZTARRIA 244

2021EKO ABENDUA

AZALEKO ARGAZKIAIEN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|---|
| 5 | Iritzia Maialen Etxaniz, <i>Erakusten ez denari.</i> | 26 | Erretratua Berastegi pandero jotzailea eta artzaina. |
| 6 | Zu zeu Maialen Beristain arropa diseinatzailea. | 30 | Plazan bazar |
| 8 | Nire leihotik Alaitz Ruiz; <i>Sentitu, sinistu.</i> | 33 | Iritzia Oier Etxeberria, <i>Kuraia on.</i> |
| 10 | Iritziak Irati Aranguren, <i>Irribarre</i> ; Hiromi Yoshida, <i>Kultura ez agerikoa.</i> | 34 | Atzera begira Antton Iraeta boxeolari ohia. |
| 12 | Erreportajea Kale izendegia. | 38 | Iritzia Miren Seguro, <i>Gure bidezidorrak.</i> |
| 18 | Elkarrizketa Esther Larrañaga Aspaceko zuzendari nagusia. | 40 | Iritzi grafikoa Itziar Aranguren. |
| 25 | Lehiaketa | 42 | Klik! Ateak eta leihoak. |
| | | 46 | Iritziak Janire Alkorta, <i>Bide berdeak, ondorio berak</i> ; Ignacio Arakistain, <i>Maleta (des)egin.</i> |

UZTARRIA

TOKIKOM

Argitaratzailea
Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-15 03 58
uztarrria@uztarrria.eus
www.uztarrria.eus

Zuzendaria:
Julene Frantzesena
Erredaktoreburua:
Ihintza Elustondo
Erredaktore taldea:
Mailo Oiarzabal
Julene Frantzesena
Maialen Etxaniz
Ihintza Elustondo
Diseinu arduraduna
Itxaro Iraeta
Publizitate arduraduna
Angel Sarasua
Zenbaki honetako
kolaboratzaileak:
Alaitz Ruiz

Irati Aranguren
Hiromi Yoshida
Itziar Aranguren
Olatz Alkorta
Oier Etxeberria
Miren Seguro
Janire Alkorta
Ignacio Arakistain
Arnaitz Rubio Aprea

Nagore Aizbitarte
Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-860/2000
ISSN: 1576-7337
Tirada: 2500 ale



PUBLIZITATEA



ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

EGUZKI
belardenda
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia, 67 943-50 94 47 **AZKOITIA**
Urtiarle 9 bis 943-15 00 23 **AZPEITIA**

KIRURI



JATETXE

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 58 08
Faxa.: 943 15 03 62



CITROËN

Aiertza Autoak
Behar duzun konfiantzazko talerari!

Marka guztietako
ibilgailuen konponketak

943-81 19 15
AZPEITIA
aiertza@aiertzaautoak.com



EuroTaller EUROTALLER MULTIMARKA ZERBITZUA

IKA
argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrokoak

Urko: 618 96 49 95 / Jon: 649 12 02 71
ikazargi@ikaik@gmail.com www.ikasistemak.com
20730 **AZPEITIA**

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO
MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 **AZPEITIA** - Urrut.: 943 81 57 81

Iuba
ahelkularitza

Analitikaritzak
libros
lehenak
konposak

Gestioi lanak
Finan administratibak
Gestio inmobiliariak

Tfn: 943 167 329 Faxa: 943 167 379
Eguren saltea: 43-41 Iuba.ahelkularitza.es



Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria Kalea, 34
20730 **AZPEITIA**
Tel.: 943-15 16 40
Larrialdiak: **688 69 29 51**

adi ARTE ETA
DISEINU
ESKOLA
ELKARTEA

Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00

Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

Talia 18:30 - 20:00

Jose Artetxe kalea, 3
943 81 20 08
arrediseinu@gmail.com
Matrícula urte osan zabalik

IRENE ALTUNA
KOMAGENDA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943-81 51 87
www.ikomagenda.com

AZKOITIA



ERLOJU
KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

JARRI HEMEN
ZURE IRAGARKIA!



Erakusten ez denari



MAIALEN ETXANIZ

Frontoira bertaratutako pilotazaleen txalo artean egin zuten sari banaketa eta jantzi zuen txapela Altunak. Ondoan zuen Laso, eta aurrean hamarnaka kazetari eta argazkilari. Konfetiak goian behean, Altunari txapela janzten zioten bitartean. Ez naiz ni ez oso pilotazalea, eta une hartan pilotariei baino konfietei begira nengoen. Eta neure baitan pentsatu nuen ea nork jasoko ote zituen konfeti haiek guztiak lurretik.

Laboaren doinueta izan zezakeen lekua galdera horrek; ez, ordea, beste inon. Liburu baten aurrean egin zituen gogoetak Brechtek, eta galdetu zuen ea Txinako Harresia bukatutako iluntzean nora jo zuten harginek. Nortzuk atondu ote zituzten garaitza banketeak edo nork altxatu zituen Erroma bikaineko garaitza arkuak. Liburuek garaitzak jasotzen zituzten gisan kontatzen dituzte gaur egungo hedabideek lorpenak. Ausartzen naiz esatera ez dagoela salbuespenik.

Asko hitz egiten da lorpenez, eta gutxi prozesuez. Asko hitz egiten da egindako proiektuez, plan estrategikoez eta politika instituzionalaz. Horregatik agertzen dira argazki gehienetan agintariak. Bestelako lanek eta aldarriek garrantzi gutxiago izango balute gisan. Asko hitz egiten da berdintasunaz eta adierazpen askatasunaz. Modan daude, baina egunerokoan ez dira ageri. Oraindik orain, gauza batzuek eta besteek ez dute berdin balio, antza. Galdetu Cadizen greba eginez altxatu diren metaleko langileei. Tanketak atera dituzte Andaluziako auzo langileetan, gerra garaiko irudiak utziz. Polizia agintarien tresna da. Egunotan hedabideen eta mass medien kontra agertu dira grebalariak. Manipulazioa salatzen dute, eta haien borroka desitxuratzea egozten diete hedabideei, besteak beste. Badirudi mobilizazio batzuek besteek baino garrantzi handiagoa dutela edo adierazpen zenbaitek besteek baino gehiago. Kazetari gisa, zer pentsatua ematen dit.

Urteko azken iritzi artikulu honen bitartez aitortza egin nahiko nieke ikusten ez diren lanetan aritzen diren herritarrei. Zaintza lanetan aritzen direnei, eraikuntzan, garbiketan eta kudeaketan aritzen direnei. Ekimen propioz autoantolatzen direnei eta aldarri ausartak kalera ateratzen dituztenei, beste askoren artean.

Atzeko lanak ez dira garrantziaren arabera zerrendan atze-atzean daudenak. Erakutsi nahi ez edo ikusten ez direnak dira. Kezka sortzen dutenak. Isilean pasatzen direnak, oihartzun handirik hartzen ez dutenak, baina oinarritzkoak eta ezinbestekoak direnak. Atzeko lanak dira jende gehienak gutxien baloratzen dituenak. Segi horrela, eta hurrengo urtera arte. ■

**ATZEKO LANAK DIRA
JENDE GEHIENAK
GUTXIEN BALORATZEN
DITUENAK**

Maialen Beristain: "Kuriositatez hasi nintzen josten, eta gustatu egin zitzaidan"

TESTUA: IHINTZA ELUSTONDO

ARGAZKIA: UTZITAKOA

Gehiegi pentsatu gabe hasi zen Maialen Beristain (Azpeitia, 1980) modaren munduan murgiltzen, eta pixkanaka, askotariko jantziak ekoiztera animatu da. Marka bat ere sortu du: Oihele izena jarri dio proiektuari. Instagram bidez eta Kotoi dendan saltzen du arropa, eta abenduaren 12an Orkatz kultur elkarteak antolatuta egingo den azokan ere jarriko du postua.

Nolatan hasi zinen modaren munduan murgiltzen?

Duela sei urte edo, Damaso auzoko lokal batean joskintza ikasten hasi nintzen, probatzeko. Alabarentzako arropak josten, neuretzako baserritar jantzia egiten... hasi nintzen, etxerako gauzak egiten. Baina gehiago ikasteko gogoa sortu zitzaidan, eta patroigintzako ikastaro bat egin nuen Donostian. Eta, orain, Zelai Luze zentrorra joaten naiz josten ikastera. Hortik aurrera, praktikatzu ikasi dut; ez dago beste sekreturik. Kuriositatez hasi nintzen, eta gustatu egin zitzaidan.

Noiz eman zenuen etxekoentzako gauzak egitetik proiektua jendearengana zabaltzeko pausoa?

Konfinamendua iritsi zen, eta gauza mordoak bat egin nituen etxean: haurrentzako petoak, batez ere. Zer-nolako gauzak egin nituen ikusita, ahizpak beste pauso bat ematera animatu ninduen. Hark esaten zidan: "Egiten dituzunak saltzeko modukoak dira". Eta nik zera erantzuten nion beti: "Nola ba?". Horrela nintzela, Kotoi dendako Esti Errazkinek esan zidan dendan egingo zidala txoko bat nire gauzak erakusteko. Azkenean, animatu egin nintzen: marka bat sortu eta Instagramen kontua zabaldu nuen. 2020ko ekainean izan zen hori. Beti ematen dizkiet eskerrak ahizpari eta Estiri pausoa ematera bultzatu nindutelako.

Gauza batek bestea ekarri zuen, beraz, batere espero gabe.

Hori da, probatzeko hasi nintzen, eta... Umeentzako jantziak sortzen hasi nintzen, eta gero inguruko helduak hasi zitzaizkidan esaten: "Zergatik ez duzu niretzako ere egiten?". Orduan, helduentzako ere hasi nintzen jantziak egiten. Horrelaxe, pixkanaka, hazten joan da proiektua.

Aurrez ba al zenuen moda munduarekin harremanik?

Bai zera! Beti gustatu izan zait arropa, baina sekula ez dut izan moda ikasteko ametsik edo antzeko ezer. Dena den, mundu horretan murgiltzen hasi nintzen, eta pila bat gustatu zitzaidan; izugarri erlaxatzen ninduen josteak. Gozatu egiten dut.

Zer-nolako jantziak sortzen dituzu?

Mota guztietako arropa egiten dut: sudaderak, petoak, konjuntak, soinekoak... Eta aurten, berrikuntza gisa, gizonezkoen sudaderak eta umeen eta emakumezkoen txaketak sortu ditut.

Zer material erabiltzen dituzu?

Gehienetan kotoizko sudadera oihala erabiltzen dut, egiaztagiri ekologikoa duena. Oihal organikoa ere erabiltzen dut; goxotasuna transmititzen du oihal horrek, eta produktu kimikorik ez duenez, azalarentzat hobea da. Ahalik eta modu jasangarrienean eta ingurumena errespetatuz lan egitea da nire asmoa. Udan lihoa ere erabiltzen dut, eta neguan, berri, pana.

Oihele izena jarri diozu proiektuari. Nondik dator izena?

Seme-alaben izenenen elkarketatik: Oihan da semea, eta Elene alaba. Eta oihalekin lan egiten dudanez, gustatu egin zitzaidan Oihele. Goxoa iruditzen zait.

Zer berezitasun ditu zure arropak?

Erosoak eta oinarritzakoak dira, armairuan edukitzeko horietakoak, denboran irauten dutenak... Kolore neutroak erabiltzen ditudanez, uste dut erraz janzteko modukoak direla. Horrez gain, Oihele arropak baditu bi bereizgarri: ponpoia eta brodatutako luma.

Zer ematen dizu josteak?

Sekulako poza ematen dit jendeak jantzi politik egiten ditudala esateak, bete egiten nau horrek. Norbait nik egindako arropa jantzita ikusten dudanean, sekulako poza sentitzen dut. Gainera, josteak pila bat erlaxatzen ninduen hasi nintzenean; orain, egia da, proiektua handitu ahala, lan gehiago dudala eta jada ez naizela hain erlaxatuta aritzen... [barreak]. Poza ematen didana hori da: jendea ondo erantzuten ari dela ikustea; horrek bultzatzen nau aurrera egitera. ■



Sentitu, sinistu

ARGAZKIA ETA TESTUA: ALAITZ RUIZ

Begiak itxi
eta berriro han,
etxean sentitu.

Neu,
aske,
gai naizela sentitu.

Begiak ireki
eta neu,
aske,
gai naizela sinistu. ■■■







Irribarre

Kox kox! Badator urte berria ate joka, eta hemen gaude gu behatxuloko zirrikitutik begira, datorrenari so, begiak dirdirka ditugula, itxaropentsu. Zer moztorro prestatuko dut inauterietarako? Nora joango naiz oporretan? Gustatzen zaigu urtea antolatzea; gogoko dugu bizitasuna ematen duten planak egitea, irriz eta umorez egunak alaitzea.

Txikitatik gustatu izan zait paper eta bolaluma artean ibiltzea; papertegietara joateak txoratu egiten nau. Zenbat kolore, testura eta forma! Haur bat gozotegian bezala sentitzen naiz bertan, gauza ororekin liluratuta eta aukeratu ezinda. Urte amaieran ere eskuartearen hartzen ditut orria eta papera, eta han hasten naiz urte berrirako erronkak

zirriborratzen. Bete nahi nituen ametsak idazten nituen, hala nola hara joatea, hura ikastea, beste hura ere ikastea eta abar. Gaur egungo orrietan, ordea, beste goxotasun eta bizitzeko modu bat nabari zaie nire jomugei. 2021. urtean familiarekin eta maite ditudaneekin gehiago egotea izan da helburu bat, puntualtasuna hobetzea bestea. Egia da, ordea, urtea aurrera joan den heinean burutik ihes egin didala erlojuaren erronkak,

NOLA DA POSIBLE GOIZ OSOAN HIRU IRRIÑO SOILIK IKUSTEA? HORI AL DA NAHI DUGUN ERREALITEA?

maitasunarenak soilik jarraitu du tinko.

Urte honen metxa ere azken txinpartak botatzen ari da, eta bururatu zait dagoeneko 2022rako etxeko lana: irribarre gehiago egitea! Ideia honek badu bere jatorria. Ditzosozko pandemia honetan niretzat egun garrantzitsuenetarikoa izan da maskararik gabe kalera ateratzeko baimena eman zigutena. Hainbeste arau jartzerekin eta kentzerekin ez dut gogoan zer egun zen, baina giro ona zegoen, eguzkia ere etorri zitzaigun bisitan, eta lehengusina txikiaren konpainian kalera joan nintzen. Etxetik irteterako aipatu nion zoriontsu nengoela maskararik gabe kalera atera gintezkeelako, eta "Araitx, gaur denak pozik egongo dira kalean! Kontatuko al ditugu kalean zehar ikusten

HAUXE BAI JENEROA!



ditugun irriñoak?", esan nion. Erronka hura gustatu egin zitzaion, eta han abiatu ginen: "Honek ez, hark ez...". Harategira joan ginen, eta hango kristaletik kaleko bi pertsonaren irriez gozatzeko aukera izan genuen. "Honek ez, hark ere ez...". Herritarrak behatzen jarraitzen genuen. Erosketak amaitu eta Loiola aldera joan ginen kafe bat hartzeko asmotan, Inaxioren konpainian. Egun lasaia zen, terrazan egoteko primerakoa, eta guk ere indarberritzeko aprobetxatu genuen goiza, geure buruak mimatuz. Eta halako batean, han dator haurra nigana, eta hala dio: "Irati, Irati, beste bat. Hango hark irri egin du!".

Hunkitu egin ninduen esaldi hark. Nik aspaldi utzi nion jendearen ezpainetako mugimenduak behatzeari,

inkontzienteki, baina berak ez. Bazkalordua urre genuen, eta goiz-goizetik hasiak ginen ezpainak aztertzen. Nola da posible goiz osoan hiru irriño soilik ikustea? Hori al da nahi dugun errealitatea? Eta guk geuk zenbat aldiz egiten dugu irri egunean zehar?

Barre egitea osasuntsua da, oso osasuntsua. Besteen irribarrea ikusteak ikaragarritzko energia ematen digu, beraz, norbere irribarre batek zenbat egunez luzatzen ote digu bizitza?

Kontuak kontu, argi dut aurren irri gehiago egin nahi dudala. Batetik, nire osasunaren mesederako; eta bestetik, irribarreak banatuz ingurune erosoagoa izan dezakegula sinesten dudalako. Eta zu, batzen al zara nire 2022ko erronkara? ■■■

HAN ETA HEMEN



HIROMI YOSHIDA

Kultura ez agerikoa

Bi kultura mota omen daude: bata agerikoa, eta bestea, ez agerikoa. Ageriko kulturaren barruan sartzen dira honako hauek: literatura, musika, zinema, pintura, bertsolaritza eta abar; beraz, arte generokoak. Eta zer da, beraz, agerikoa ez den kultura? Bertako jendeak bizitzan sakon errotuta dauzkan ohiturak eta pentsamoldeak, bizitzari begiratzeko ikuspuntuak eta abar. Kanpotarrak ez dira erraz konturatzen horiez, bertakoak eta horien bizitza gertutik ezagutu gabe.

Euskaldunen kasuari erreparatuz, hona hemen adibideak (nik Azpeitian ikasitakoak): Euskal Herrian, "xurre izetie" ikaragarri gaizki ikusita dago (gurean ere bai, baina ez zuenean bezainbat). Hori zuen bizitzan oso garrantzitsua den pentsamoldea da. Euskal Herrian, oparia diruz egitea ez da hain normala. Lagunari lan bat eskertzeko dirua emateak lotsa ematen dizue, eta diru hori jasoko lukeenari ere gauza bera. Beraz, diruari lotsa edo horrelako zerbait diozue; hori ere euskal gizartean dakusadan mentalitate aipagarria da. Adibide gehiago emango nituzke, baina gaurkoz, besterik gabe. Agerikoa ez den kulturaz jabetzea interesgarria eta garrantzitsua da bertakoak ondo ezagutzeko. ■■■





Izena baino askoz gehiago

Azpeitiko kale izendegia ez da, inolaz ere, salbuespena: emakumeen arrastorik ez da kasik leku izenen zerrendan. Historiaren nolakotasunaren isla da hori, baina hasiak dira egoera iraultzeko urratsak ematen: Balentina Agirre Elorza plaza da emakume izena duen herriko lehen eremua, eta momentuz, bakarra. Testua: **Julene Frantzesena**. Argazkiak: **Kris Fernandez**.

Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak agerikoak dira herrietako nahiz hirietako kale izendegietan (ere). Historikoki emakumeekin egin den bazterketaren ondorioetako bat baino ez da herrietako mapena, eta Azpeitikoa ez da salbuespena. Izan ere, esku bateko hatzekin konta daitezke emakumeen izenak dituzten herriko guneak.

Azpeitiko kale izendegian 79 leku izen ageri dira, hala nola kaleak, auzoak, industrialdeak, estratak nahiz hiribideak. Horietatik hamahiruk baino ez dituzte pertsona izenak, eta haietatik bat baino ez da emakumeena: Balentina Agirre plaza, XX. mendean emagin izan zenaren omenez duela bost urte izendatutakoa. Bada, baina, beste leku izen femenino bat ere, pertsona izena ez den arren, urteetan Errebala eta Goiko kalearen artean dagoen plazari izena ematen diona eta erlijioarekin lotura zuzen-zuzena duena: Olazko Andre Mariaren plaza.

Gizartean gizon-emakumeak paretsu baldin badira ere, historiara eta erreferenteetara joz gero, asko aldatzen da egoera. Kale izendegia, zehazki, horrexen isla da, baita kale izenek Elizarekin nahiz errege etxeekin dituzten loturak ere. Baina historian izan dira emakume irakasleak, emakume zientzialariak, emakume beharginak, azpeitiarrak nahiz beste jatorri batzuetakoak, eta Agirre emaginaren kasua kenduta, ez dago haien itzalik Azpeitiko kale izendegian.

Parekidetasuna ipar

Azken urteetan, Azpeitiko Udalari egokitu zaio herriko eremu batzuei izena jartzea. Hain zuzen ere, 2016ko apirilaren 14an 250 urte bete ziren Azpeitian eta Azkoitian 1766ko gariaren matxinada piztu zela, eta horren harira, Azpeitiko udalbatzarrak aho batez onartu zuen gertakari hura kale izendegira eramatea, Azpeitiko Kultur Mahaiak eginiko proposamenari erantzunez.

Handik hilabete gutxira, 2016ko azaroan, emakume izena duen lehen plaza izendatu zuen udalak. Zehazki, Artzubia, Jose Artetxe eta Ildefonso Gurrutxaga kaleen arteko jolas parkea dagoen plazari Balentina Agirre Elorza izena eman zion erakundeak, udalbatzak aho batez erabakita. Eneko Etxeberria orduko alkateak hala esan zuen plazari izen hori ematea erdietsi zutenean: "Kale izendegian emakumeen presentziaren gainean justizia egiten da. Ez zaio kalea ematen emakumea zelako, oso ezaguna zelako eta herriaren alde egin zuen lanarengatik baizik".

Lehen urrats hura aurreko agitaldian egin zuen erakundeak, eta Aitor Bereziartua Hirigintza batzordeburuak azaldu duenez, azken bi agintaldietan izendatu dituzten bi kaleak "herri ekimenez" egingako eskaerei erantzunez egin dituzte. "Emakumeen Mahaiak,



esaterako, lanketa egin zuen emakumeen erreferentziak sortzeko bidean, eta lanketa hori eginda, lehen urratsa egitea izan zen gure konpromisoa".

Kaleei izena jartzeko parada ez da egunero sortzen, Bereziartuak azaldu duenez. "Kale berriak egitean izaten da horretarako aukera, baita izenik gabe dauden plazak edo eremuak daudenean ere. Azken bi kale izenen kasuan hala izan da; ez zuten izenik, eta proposamenak jaso zirenez... Izenik gabeko hainbat eremu zehaztuta ditugu, izen proposamenen zerrenda egina, eta beraz, kale berriak sortzea erabakitzen bada, ikusiko dugu zein den izenik egokiena". Hala eta guztiz, argi du bideak zein izan behar duen. "Kale izendegia parekidea izateko konpromisoa hartuta dugu, hori da gure irizpide nagusia. Hala eta guztiz, eremu bakoitzaren berezitasunak aintzat hartuta izenik egokiena bilatzen saiatuko gara, eta herriko eragileekin ere partekatuko dugu asmoa".

"Orain arte historiako erreferentzia nagusiak gizonetzkoenak" izan direla islatzen dute herrietako kale izendegiek Idoia Arrizabalaga Parekidetasun zinegotziaren arabera. Baina hori aldatzen ari dela azaldu du, emakume erreferenteak sortzen eta horiek kale izendegietara heltzen ari direlako. Dena den, prozesua "oso makal" doala adierazi du hark. Eta horren erakusle da Azpeitian plaza izen bat soilik izatea emakumeek, baina Arrizabalagaren ustez, lehen

pausoa eman dute. "Sinbolikoa izanagatik, ibilbide baten lehen urratsa eta oinarria da".

Dena den, Azpeitiko errealitatea "salbuespena ez" dela adierazi du Arrizabalagak, nahiz eta udalak egoerari buelta emateko konpromisoa baduela adierazi duen. "Emakumeek ere egin dute historia, nola ez, baina gehienetan ezkutuan gelditu da horiek egindako lana". Haren aburuz, horren eraginez gizarteak ezjakintasun handia du eta erreferenteak diren emakumeak falta zaizkie herritarrei.

Azpeitiko Udalak kale izendegia berritzeko protokolo idatzirik ez duela adierazi du Arrizabalagak, baina erakundeak kale izendegiaren errealitatea "landuta" eta emakume erreferenteen zerrenda osatuta duela esan du. "Kaleren edo plazaren bati izena jartzea tokatzen denean aintzat hartuko dugu zerrenda hori; izan ere, garai, lanbide, adin eta erreferentzia desberdinetako emakumeak ageri dira zerrendan".

Zein da zein?

Azpeitian pertsona izenak dituzten leku izen gehienak herriko historiaren parte izan diren gizonenak dira; horietako asko elizgizonenak dira, gainera, eta Azpeitikoak ez diren elizgizonen izenak gehitu behar zaizkie horiei: Garate anaia, Joan XXIII, Paulo VI, Idelfonso Gurrutxaga, Iñaki Azpiazu, Jose Artetxe, Damaso Azkue, Jose Antonio Agirre, Perez Arregi, Julian Elorza, Loiolako Ignazio Hiribidea eta Julian Barrenetxea. Baina nor zen nor?

Angelo Giuseppe Roncalli Joan XXIII.a aita saindua izan zen 1958tik 1963ra bitartean.

Haren gisan, Giovanni Battista Enrico Antonio Maria Montini, Paulo VI. izenez ezaguna, aita saindua izan zen, 1963 eta 1978 urteen artean.

Ez dira baina bi horiek Azpeitiko kale izendegian aurki daitezkeen eta Elizarekin zerikusia duten izen bakarrak. Izan ere, fokua herrian jarrita egindako izendapenak ere badira. Hain zuzen, Garate anaia bezala ezaguna zen Francisco Garate jesuitak (Azpeitia, 1857-Bilbo, 1923) bere izena duen auzo bat dauka Azpeitian. Bilboko Deustuko Unibertsitateko atezaina izan zen azpeitiarra 41 urtez.

Iñaki Azpiazu kaleak jesuita zenari egiten dio erreferentzia. 1910ean Azpeitian jaioa, Zientzia Politikoak eta Sozialak ikasi zituen Lillen (Frantzia). ELA-STVn aritu zen kolaboratzen Añanan (Araba), eta Azpeitira ituli zen ondoren. Tropa frankistak Azpeitira sartu zirenean atxilotu egin zuten, eta zazpi hilabeteko kartzelaldia eginda, Frantziara itzuli zen frankistengandik ihesi. Gerora, Argentinara egin zuen jauzi, eta han elizgizon lanetan aritu zen, beti ere, gizarte gaiet lotuta.

Julian Barrenetxea da, Balentina Agirrerekin batera, azken hamarkadetan herrian leku bat izendatzeko erabili den pertsonaietako bat. Izan ere, Elizkalea eta Erdikalea lotzen dituen estratari izen hura eman zion Azpeitiko Udalak 2011n. Mutrikuarra zen sortzez apaiz, konposatzaile eta organo jotzailea, baina Azpeitian bizi izan zen hainbat urtez. Azpeitiko Parrokiako abesbatzan lan handia egin zuen, eta gaur egun bere izena du herriko abesbatzak.

**"KALE IZENDEGIA
PAREKIDEA IZATEKO
KONPROMISOA
HARTUTA DUGU, HORI
DA GURE IRIZPIDEA"**

**"EMAKUMEEK ERE EGIN
DUTE HISTORIA, BAINA
GEHIENETAN EZKUTUAN
GELDITU DA HORIEK
EGINDAKO LANA"**



Loiolako Inaziok –Eneko Lopez Loiolakoa jaiotzez– ere badu bere lekua herriko kale izendegian; hain zuzen ere, hiribide batek hartzen du bere izena. Militarra eta erlijiosoa izan zen Inazio, Jesusen Lagundiaren sortzaileetakoa eta Espainiako kontraerreformaren buruetako bat. 1941ean Loiolan jaio zen, eta Erroman hil 1556an.

Idelfonso Gurrutxaga (Azpeitia, 1902-Donostia, 1974) abokatua eta historialaria izan zen. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako fiskal nagusi izana, Ciudad Realgo (Espainia) eta Alacanteko (Herrialde Katalanak) magistratua nahiz Tarragonako auzitegiko presidentea izan zen. Espainiako Gerra amaitzean Argentinara joan zen, eta hainbat lan argitaratu zituen.

Jose Artetxe (Azpeitia, 1906-Donostia, 1971) kazetaria eta idazlea zen. Hainbat lanetan aritua, EAJko militantea izan zen hainbat urtez, baina euskal abertzaletasunari eta errepublikaren aldeko aldarriari uko egin zion gerora. Gainera, nazionalekin aritu zen gerran. Gerora, Donostiara joan zen bizitzera, Gipuzkoako Aldundiak artxibozain lana eskainita. Hainbat eta hainbat artikulua idatzi zituen, besteak beste, *ABC*, *El Correo*, *El Faro de Ceuta*, *El Telegrama del Rif*, *Informaciones* o *La Gaceta del Norte* egunkarietan nahiz *Argia*, *El Día* eta *Yakintza* aldizkarietan gerraren aurretik, eta *Zeruko Argia*, *Aranzazu* eta *Hoja del lunes* gerra ostean. Gainera, hainbat biografia lan idatzi zituen, hala nola *Elcano* (1941), *San Ignacio de Loyola* (1941), *Urdaneta* (1943), *Legazpi* (1947), *San Francisco Javier* (1951) eta *Lope de Aguirre, traidor* (1951).

Damaso Azkue auzoak izen bereko enpresariari egiten dio erreferentzia. Hain zuzen ere, auzoa eraiki aurretik izen hori zuen enpresa zegoen eremu hartan, eta eraikitzean enpresariaren eta izen bereko lantokiaren izena jarri zioten auzo berriari.

Jose Antonio Agirre (Bilbo, 1904-Paris, 1960) Eusko Jaurlaritzako lehen lehendakaria izan zen, 1936an izendatuta. Abokatua zen, Deustuko Unibertsitatean ikasia, eta urtebete egin zuen lehendakari karguan. Izan ere, Bilbo Frankoren tropek hartu zutenean Bartzelonara joan zen Agirre, eta 1939an, Parisera erbesteratu zen. Bigarren Mundu Gerraren eztandak eta nazien jarraipenak ezkutatuarazi egin zuen, eta AEBetara egin zuen ihes. 1945ean Parisera itzuli zen.

Ignacio da Perez Arregi plazari izena ematen dion pertsonaren izena. Politikaria zen, 1884an Azpeitian sortua, eta Filosofia eta Letrak nahiz Zuzenbide kasketak egin zituen Salamancan zein Valladoliden (Espainia), eta alderdi integristako militantea izan zen. 1905ean zinegotzia izan zen Azpeitiko Udalean, eta Gipuzkoako diputatua 1913tik 1926ra bitartean. 1982an hil zen Donostian.

Julian Elorza (Azpeitia, 1879-Donostia, 1964) abokatua eta politikaria izan zen. Gipuzkoako diputatua izan zen 1911 eta 1931 urteen artean, eta Gipuzkoako Foru Alundiko presidentea 1919tik 1924ra. Abokatu aritu zen politikan bidea egiten hasi aurretik.

Pertsona horiek guztiak historikoak dira, eta denek badute beste zerbait ere komunean: gizonak dira. Ez da kasualitatea, eta Azpeitiko ez da kasu isolatua; izan ere, Euskal Herriko gainerako herrietan eta hirietan ere antzekoa da egoera. Pasatuko al dira inoiz emakume izenak salbuespen izatetik herriaren erdiguneko lekuei izena ematera? ■■■



AZPEITIKO KALE IZENDEGIA

Kale izendegi hau 2008an Azpeitiko Udalak eguneratu eta Euskaltzaindiak onartutakoa da (*dute harrezkero izendatutako leku izenek).

Auzoa

Agirre auzoa
Aratzerreka auzoa
Arriaga auzoa
Barrenetxe auzoa
Eizagirre auzoa
Elosiaga auzoa
Enparangain
Etxe-Alai auzoa
Garate Anaiaren auzoa
Garmendi auzoa
Izarraitz auzoa
Joan XXIII auzoa
Loiola auzoa
Magdalena auzoa
Nuarbe auzoa
Odria auzoa
Oñatz auzoa
Paulo VI auzoa
Salbe auzoa
Santutxo auzoa
Soreasu auzoa
Urbitarre auzoa

Kalea

Amue kalea
Antzibarrena kalea
Arana kalea
Aranagoikoa kalea
Aitzuriaga kalea
Bustinzuriko Errebala
Elizkale kalea

Enparan kalea
Erdikale kalea
Errekalde kalea
Euskal Herria kalea
Garmendipe kalea
Gerratziki kalea
Gerraundi kalea
Goiko kalea
Ibaieder kalea
Ibaiondo kalea
Ildefonso Gurrutxaga kalea
Iñaki Azpiazu kalea
Jose Artetxe kalea
Kaleaundia
Kalebarrena
Kerexeta kalea
Ondarra kalea
Orendaundi kalea
Perdillegi kalea
Done Jakue kalea
Zerralde kalea
Txaribarko Errebala
Kaletxiki
Urola kalea
Zubizar kalea
1766ko Matxinada kalea

Industrialdea

Anardi industrialdea
Basarte industrialdea
Gallegi industrialdea
Garmendigain industrialdea

(Oñatz)

Larrañaga industrialdea
Olalde industrialdea
Urtelaieta industrialdea

Plaza

Antxieta plaza
Balentina Agirre plaza*
Damaso Azkue plaza
Iberotarren plaza
Jose Antonio Agirre plaza
Plaza Nagusia
Olazko Andre Mariaren plaza
Perez Arregi plaza
Plaza Txikia

Pasealekua

Foru pasealekua

Etorbidea

Artubia etorbidea
Julian Elorza etorbidea
Landeta etorbidea
Loiolako Ignazio etorbidea

Bidea:

Oñazbidea

Estrata

San Martin estrata
Julian Barrenetxea estrata*

"Bizitzarako ikasbidea da ematen digutena, pentsakera aldatzen zaigu"

ESTHER LARRAÑAGA ASPACEKO ZUZENDARIA

Garun paralisia duten pertsonenen eta haien familien Gipuzkoako elkarteak urte luzez izan du egoitza bat Azpeitian, baina duela bi urte itxi zituen ateak azkenak. Hala ere, kide eta bazkide azpeitiarrak baditu Aspacek, eta azpeitiarra da elkartearen zuzendaria ere. Larrañagak ez du betetzen duen ardura hartu izanaren damurik.

Testua: **Mailo Oiarzabal**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Gizarte Politikako diputatu izatetik Aspaceko zuzendari kargua hartzera igaro zen Esther Larrañaga (Azpeitia, 1960) duela ia hamabost urte. Lan horretan ikasitakoarekin eskertuta, bere elkarteko kideez eta horien lorpenez harro hitz egiten du. 50 urte

bete ditu Aspacek, egindako bidea ospatzeko tartea eta aurrera begira jartzeko indarra hartuta.

Nolatan eta noiz iritsi zinen Aspacera?

2007an iritsi nintzen Aspacera. Aurretik Gipuzkoako Foru Aldundian egon nintzen, Gizarte Zerbitzuetako departamentuan. Une hartan Aspaceko zuzendaria zena beste prozesu profesional batean sartzen ari zen. Asmoa ez zen hain azkar sartzea, baina beste modu batean suertatu ziren gauzak; postu hartarako inor gabe gelditzera zihoazen, eta niri eskaini zidaten. Foru Aldundian ezagutu nuen gizarte zerbitzuen arloa. Ordura arte ez nuen harremanik arlo horrekin; Zuzenbide ikasketak egindakoa naiz, eta nire aurreko ibilbide profesionala bestelakoa zen. Duela 30 urte baten batek gizarte zerbitzuetan bukatzea pentsatzen al nuen galdetu izan balit,

erantzuna "inondik inora ez" izango zatekeen. Baina, egia esan, harrapatu egiten zaituen arlo bat da; probatu ez duenak, ez daki zer den hori. Asko ematen duen lana da. Aspacen, gurasoek batik bat, egiten dugun lana eskertzen digutenean, beti esaten diet ez dakitela zenbat ematen diguten beraiek guri. Askoz gehiago ematen digute profesionaloi, horrelako erakunde batean lan egiteko aukera emate hutsarekin ere. Bizitzarako ikasbidea da ematen digutena, pentsakera aldatzen zaigu.

Zer zenekien Aspacez?

Aldundian izan nuen arduragatik ezagutzen nuen elkarte. Desgaitasunen arloa bereziki gustatu zitzaidan Aldundiko garaian, eta horregatik, Aspacekoa aukera oso polita iruditu zitzaidan ibilbide berri bat lantzeko. Aspace ezagutzen nuen, baina gainetik, nolabait esateko. Elkarteaz ezer ez dakienak baino zerbait gehiago nekien, baina ez dauka zerikusirik kanpotik ala barrutik ikusteak. Barrutik ezagutzea beste mundu bat da: zenbat familia dauden inplikaturik, erabiltzaileek zer gogo eta zer indar dituzten, nolako parte hartze prozesuak dauden Aspaceren barruan...





Baina kalean ikusten dituzu, eta... Erabiltzaileek askotan esaten duten bezala, "pertsonak gurpildun aulkia ikusten dute eta ez dira jabetzen guk gure buruetan, gure barruetan, zer gauza dauzkagun". Eta egia da hori. Guk egunero-egunero ikusten dugu pertsona horiek zer bizipoz duten eta zer gogo duten gauzak egiteko. Beharbada, gu gara ez dakigunak haien beharretara egokitzen. Gizarte honetan denok gabiltza abiada batean, eta garun paralisia duten pertsonak zerbaitek berdintzen baditu, jaiotzetik duten motrizitate ezintasuna eta komunikazio arazoak dira: ezin badute ibili, eta gainera, komunikatzeko zailtasunak badituzte... Ez gaude ohituta, inork ez digu irakatsi horrelako pertsonekin hartu-emana izaten, eta ez da erraza. **Garun paralisia duten pertsonen eta familien elkarteak da Aspace. Zer nabarmenduko zenuke zuzentzen duzun elkarte horretaz?**

Aspace familien elkarte bat da, hori da bere ezaugarri nabarmenenetakoa. Duela 50 urte, familia batzuei esker sortu zen. Garai hartan ez zegoen ezer, ez erakunderik eta ez ezer, familia haien umeen bizitza garatzen laguntzeko. Ausartak izan ziren familia haiek, beren dirua jarri zuten seme-alabei ahalik eta arreta eta zerbitzu onenak eskaintzeko. Momentu hartan zegoen bakarra zen Asociacion pro Subnormales zeritzona, gerora Atzegi bihurtu zena, baina han biltzen ziren desgaitasunen bat zuten guztiak, nahastuta. Aspace izan zen desgaitasun espezifiko

bat artatzeko handik sortu zen lehen elkarteak, eta ibilbide bera egin zuten gero beste batzuek. Garun paralisia dutenak behar izaten dituzten terapiak lortzen eta profesionalak hezten hasi zen Aspace, ume haiek behar zituzten formatutako profesionalak ere ez baitzeuden; fisioterapeutak izan ziren, hain zuzen ere, Aspaceko lehen profesionalak. Garun parasiliari eskainitako zentro bat zegoen Bartzelonan eta hara joan ziren ikastera, han ikasitakoak hona ekartzeko; Aspacerekin lanean hasi zen lehen medikua ere Bartzelonatik etortzen zen, tartean behin, hemengo umeen jarraipena egiteko zein diagnostikatzeko.

Atzerapenarekin, baina murgildu zarete elkartearen 50. urtemugaren ospakizunetan.

Joan den otsailaren 14n bete zituen Aspacek 50 urte eta une larrian geunden momentu hartan. Iazko urri-azaroan oso gaizki pasatu genuen pandemiarekin; bi etxebizitzatan, batik bat, bete-betean harrapatu gintuen COVID-19ak. Beraz, urtarilean eta otsailean ez geunden gu ospakizunetan pentsatzeko ere. Hala ere, bazegoen gogo bat, eta Aste Santua pasatu ondoren hasi zen jendea zerbaite egin beharra zegoela esaten. Azkenean, ospakizunak urte natural bati lotu beharrean, aurtengo urrian hasi eta datorren urteko urrian bukatzea otu zitzaion. Urriko lehen asteazkena izaten da Garun Paralisiaren Mundu Eguna, horren inguruan ospatzen dugu urtero Aspace Eguna, eta data hori



erreferentzia gisara hartuta, elkarteko kideek pentsatu zuten egokia izan zitekeela ospakizunak horrela antolatzea, bi urtetan banatuta.

Zer asmo dituzue datozen hilabeteetarako?

Antolaketa guztia gurasoen esku dago, eta horiek, 50. urteurrenari lotuta lau helburu zehaztu zituzten hasieratik. Gipuzkoako gizarteari eskerrak ematea da helburuetako bat, oso argi baitute gurasoek Aspace ez zela posible izango gizarteak hasieratik emandako laguntzagatik izan ez balitz. Duela mende erdiko egunkariak-eta irakurrita ikusten da jendeak asko lagundu zuela; Azpeitian, adibidez, zezenketak ere antolatu ziren Aspaceren alde garai hartan. Elkartearen proiektua ahal den neurrian gehiago ezagutaraztea da beste helburu bat. Guretzat oso garrantzitsua da kalean egotea, gizarteak ezagutzea garun paralisia duten pertsonak zer kezka, zer laguntza edota zer egoera bizi dituzten. Elkarte gisara geu gehiago sendotzea ere badago 50. urtemugarako ezarri dituzten helburuan artean. Sarritan, gauzak lortzen eta beharrak asetzen joan ahala, galtzen joaten da elkarrekin sorreran zuten indarra; eta gurasoek argi izan dute urteurren hau aukera ona izan daitekeela kanpora ez ezik, barrura begira ere jartzeko, elkarte barruko harremanak indartzeko eta estutzeko. Azkenik, Aspaceren sare handi eta konplikatu hori are gehiago zabaltzea da ospakizunak antolatzen dihardutenen beste asmo nagusi bat: zenbat eta Aspacelagun gehiago,

zenbat eta kolaboratzaile gehiago eduki, hobeto egongo gara eta sendoago izango gara.

Tabakaleran egin genuen inaugurazio ekitaldiarekin hasi genituen ospakizunak, urriaren 4an, eta 2022ko urrian Aspace Egun berezi bat eginez bukatzea da asmoa. Bitartean, ospakizunak hilerorik herri egitea da gure asmoa. Gaur egun hamabost zentro ditugu hamar herritan banatuta, eta herri horietako bakoitzean ekintza eta ekitaldi desberdinak antolatzen joango gara.

Hamar herri horien artean al dago Azpeitia?

Ez, ez dago. Azpeitian egon gara orain gutxira arte, baina dagoeneko ez daukagu zentrorik herrian. 1978an iritsi zen Aspace Urrestillara, han ireki zuten garun paralisia zuten inguruko umeentzako eskola. 2019ra arte, Perdillegi kalean, musika eskola dagoen eraikinean, kanpo kontsulten zerbitzua ematen genuen, bereziki 0 eta 6 urte arteko umei zuzendutakoa; fisioterapia tratamenduak eta logopedia zerbitzua jasotzen zuten, batik bat. Baina arreta goiztiarraren erudia erabat aldatzea erabaki zuen elkarrekin; haurrek behar duten arreta eta behar dituzten zerbitzu eta laguntza guztiak beren hurbileko inguruan eskaintzen hasi ginen. Finean, haurrekin eta familiekin lan egiteko modua zeharo aldatu da. Profesionalak umea ibiltzen den inguruetara joaten dira orain, eta, besteak beste, ez ditugu behar lehen lanketa jakin batzuetarako erabiltzen genituen espazio fisikoak. Beraz, Azpeitiko zentroa erabilerarik gabe gelditu zitzaigun,

horrela edukitzeak ez zuela merezi erabaki genuen eta alkateari gutuna bidali genion, gure erabakia azaltzeko. Eta esker pila bat emateko ere bai, 41 urtez oso kolaborazio polita izan dugulako udalarekin. Aurreko batean konturatu nintzen Aspaceren kartelak han jarraitzen duela oraindik, baina jada ez gaude han. Pena handiarekin, baina ez gaude Azpeitian.

Hala ere, Azpeitian izango ditu erabiltzaileak Aspacek, ezta?

Bai. badaude, baina ez dira asko, egia esanda. Baditugu txikiak, eskolan dabiltzanak; 21 urtetik gorakoak ere bai, gure eguneko zentroetara joaten direnak; eta gurekin bizitzen daudenak ere badira. Azken horiek guztiak Donostian bizi dira. Eguneko zentroetara joaten diren gehienak Urretxukora joaten dira, Azpeititik gertuen dagoena baita hango zentroa; eta hezkuntzan ditugunen artean batzuk Eibarrera joaten dira, beste bat Bergarara... Adinaren eta etaparen arabera, ikastetxe batera edo bestera joaten dira. Ezintasuna duten pertsona horiek herritik kanpora mugitu behar izatea beste arazo bat da familientzako; nahi edo nahi ez, hori hala da. Beste alde batetik ikusita, esan nahi du ez dagoela nahikoa kolektibo edo erabiltzaile kopuru zerbitzu horiek Azpeitian bertan sortzeko, eta hori ere ez da seinale txarra.

Hezkuntza, eguneko zentroak eta etxebizitzak aipatu dituzu. Horiek al dira Aspacek eskaintzen dituen zerbitzu nagusiak?

Jaiotzen denetik bukaerara arte, bizitzan zehar eta adinaren arabera beharko dituen zerbitzu guztiak eskaintzen dizkio Aspacek garun paralisia duen pertsonari, eta haren familiari ere bai: arreta goiztiarra 6 urtera arte, hezkuntza 6 urtetik 20 urtera arte, eguneko zentroak 21 urtetik aurrera, eta behar edo nahi dutenentzat, etxebizitza zerbitzua ere bai. Familiak ez dira beren kabuz iristen Aspacera, osasun sareak bideratuta baizik; normalean Osakidetzaiko neuropediatrak dira, haur batek tratamendu berezi bat behar duela irizten diotenean, familiak gurera bideratzen dituztenak. Aspacen errehabilitazioan aditua den medikua daukagu, hark aztertzen du kasu bakoitza, eta arreta goiztiarreko profesionalen eskuetan uzten du, hala behar izanez gero. Nabarmentzekoa iruditzen zait, dena den, jaioberrien edo hilabeteetako haurren kasuetan, lan gehiago egiten dela familiekin, gurasoekin edota anai-arrebekin, umearekin berarekin baino.

6 urte betetzen dituztenean, hezkuntza sarean sartzen dira haurrak. Eta agian oso jende gutxi dakien arren, Aspace hezkuntza zentro bat ere bada; hitzarmenak ditugu Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin, eta itunpeko zentro bat gara. Gaur egun, 25 gela ditugu Gipuzkoako hainbat herritan banatuta, eta 122 ikasle. Premia bereziak ditugu eta gure ratioak ez dira ohikoak, ezta ikasketa etapak ere; batez beste bost ikasle ditugu gela bakoitzean, eta gela bakoitzak irakasle bat eta begirale bat ditu. Hezkuntzako zirkuitua osatzen dutenean, aldundiaren konpetentzietan sartzen gara, eta Aspaceren eguneko zentroetara pasatzen dira erabiltzaileak; horiek ere hainbat herritan ditugu martxan, eta 25-30 erabiltzaile ditugu bakoitzean, 242 guztira, gaur egun. Etxebizitzena da gero eta pisu eta garrantzi gehiago hartzen ari den beste zerbitzua. Duela 50 urte ume ziren haiek adinean aurrera doaz, familiak ere zahartzen joaten dira eta euskarriak gutxitzen, eta irtenbide bat eskaini behar zaie. Momentu honetan, 134 plaza ditugu etxebizitzetan, Donostian, Irunen eta Arrasaten.

Horiez gain, beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditu Aspacek. Arinagoak direla esan dezakegu, baina familientzat oso garrantzitsuak; etxebizitzetan aldi baterako egonaldiak edota asteburuetan ere eguneko zentroak irekitzea, esaterako. Familek laguntza handia behar dute, inor ez dago prestatuta horrelako egoera bati aurre egiteko, eta Aspacek ahalegin handia egin arren, behin ere ez da nahikoa izango. Zerbitzuak ematea garrantzitsua da, zerbitzu horiek gabe ez litzateke posible izango Gipuzkoan dugun egitura mantentzea, baina hori edozeinek eman dezake. Aspace bezalako erakunde baten balioa da familek beraiek erabakitzen eta kudeatzen dutela zerbitzua nola eman.

Garun paralisien artean mailarik ba al dago. Hau da, zuen erabiltzaile guztiek behar beretsuak al dituzte?

Ez naiz medikua eta zaila egiten zait galdera horri erantzutea. Hala ere, garai batean agian bai, baina gaur egun erabateko edo ehunetik ehuneko garun paralisi asko ez daude. Gaur egun garun paralisidun hainbeste ume ere ez da jaiotzen.

Aspace sortu zenean baino kasu gutxiago al daude?

Garun paralisia dutenen elkartea garelako esanda laburtzen dugu, baina berez, gaur egun, garun paralisia eta antzeko alterazioak dituztenen elkartea da Aspace. Ez dakit noiz zabaldu zuten esparrua, baina ni iritsi nintzenerako horrela zen.



Esther Larrañaga.

**"INORK EZ DIGU IRAKATSI
HORRELAKO PERTSONEKIN HARTU-
EMANA IZATEN, ETA EZ DA ERRAZA"**

**"DUELA MENDE ERDIKO
EGUNKARIETAN IKUSTEN DA
JENDEAK ASKO LAGUNDU ZUELA"**

**"ASPACE GISAKO ERAKUNDEEN
BALIOA DA FAMILIEK ERABAKITZEN
DUTELA ZERBITZUA NOLA EMAN"**

Izan ere, garun paralisira mugatuz gero, diagnostiko hori izan gabe antzeko beharrak dituzten pertsona asko utziko genituzke kanpoan. Behar oso antzekoak dituzten diagnostiko desberdinak daude. Gautenari ere antzekoa gertatu zaio. Denok joan gara nolabait gure aterkia zabaltzen, handitzen, behar bat zegoelako eta beharra zuen jende gehiagorengana iritsi ahal izateko. Beraz, bai, garun paralisi diagnostikoak gutxitzen joan dira, baina gure elkarteari dagokionez, kopuruak nahiko egonkorak dira. Bestetik, ikusten badugu arreta goiztiarreko zerbitzua jasotzen duen ume batek beste gaitasun batzuk dituela, edo beste leku batean garapen aberasgarriagoa izan dezakeela, geuk jakinarazten diegu Hezkuntzako eragileei, eta horiek ikastetxe arrunterara bidera dezakete ume hori. 78 erabiltzaile dauzkagu gaur egun arreta goiztiarreko zerbitzuan, baina horietatik hamazazpi daude Aspaceren geletan matrikulatuta; guztiek dute gure zerbitzuaren babesa, baina gehienak ikastetxe arruntetan daude. Batzuek ikasketa prozesu arrunta jarraituko dute eta ailegatuko dira ailegatu behar duten tokiraino; beste batzuek, ordea, adin batera iristen direnean zailtasunak izaten dituzte, eta horiek Aspacera berbideratzen dituzte. Bitartean ikasi, ikusarazi eta bizi izan dutena, ordea, hor izango dute betiko.

50. urteurrenena itzulita, horrelako efemerideak atzera begiratzeko une aproposak izan daitezke. Atzera begira jarrita, zer nabarmenduko zenuke Aspaceren ibilbideaz?

Uste dut nabarmentzeko moduko gauza asko daudela. Urteurren hau dela eta, neuk ere Aspaceren historian eta ibilbidean gehiago sakontzeko aukera izan dut, zer den eta zer ez den hobeto ezagutzeko eta ulertzeko aukera, eta nabarmenduko nukeen lehen gauza da hasiera-hasieratik garbi izan zutela gurasoek beharra zutenen etxeetatik ahalik eta gertuen, eskura, jarri behar zituztela zerbitzuak. Donostian sortu zen Aspace, baina sortu eta bi urtera dagoeneko Eibarren ere bazeuden, eta hortik aurrera azkar zabaldu zen elkartea herri gehiagotara. Zentzu horretan, uste dut benetako aitzindariak izan zirela lehen guraso haiek: gaur egungoak baino komunikazio eta errepide askoz eskasagoekin, garbi zuten eskualdeka lan egitea giltzarria zela. Oso gutxi ezagutzen den beste balio garrantzitsu bat ere badu Aspacek. Gaur egun asko hitz egiten dugu guztiok berdintasunaz, parte hartzeaz...



baina balio horiek geneetan txertatuta ditu Aspacek. Elkartea kanpotik ezagutzen dutenek zerbitzuen alderdi asistentziala ikusten dute, eta neuk ere agian horixe nabarmendu dut gehien elkarrizketan zehar, baina hori baino askoz gehiago da Aspace. Kide guztien parte hartzea bermatzeko barne egiturak ezarrita dituzte

eguneko zentroen sarean: zentro bakoitzak bertako erabiltzaileen artean aukeratutako ordezkari bat dauka, eta Aspacek dituen bederatzi eguneko zentroetako ordezkariak kide anitzeko zuzendaritza osatzen dute. Zentro horietan eguneroko dinamikak ere erabiltzaile guztien parte hartzea bultzatzeko antolatuta daude. Aspace zuzentzen duen guraso batzordean ere ordezkariak daude erabiltzaileak. Finean, erabakigune guztietan eskubide berberekin parte hartzen dute, eta horretara bideratuta dago elkartearen antolaketa.

Familiei eta erabiltzaileei mende erdi honetako eboluzioaz eta aldaketa nagusiez galdetuz gero, berriz, aulkiak aipatzen dituzte lehendabizi, batik bat erabiltzaileek; gorpildun aulki elektrikoek ekarritako onurak, zehazki.

Eta aurrera begira, zer erronka ditu Aspacek?

Erronka asko ditu Aspacek. Zahartzea da horietako bat. Gure erabiltzaileak adin jakin batzuetara iristea lorpen bat da, alde batetik, bizi itxaropena luzatu egin zaielako eta 50 urte hauetan egin den lanak zerikusi garbia izan duelako horretan. 60 eta 76 urte bitarteko hemeretzi erabiltzaile ditugu dagoeneko, baina horien atzetik datozen adin tarteetakoak askoz gehiago dira. Kontuan hartzen badugu gure medikuek garun paralisia dutenentzat zahartzaroa 45 urterekin hasten dela diotela, hori dugu aurre egin beharreko erronka handi bat. Horrekin lotuta, etxebizitza gehiago beharko ditugu, dudarik gabe; eta ez bakarrik erabiltzaileak eta familiak adinean aurrera doazelako, baita familia ereduak asko aldatzen ari direlako ere, gizartea bera aldatzen doan neurri berean.

Zure lanak zer bilakaera izan du Aspacera iritsi zinetetik gaur arte?

Hasieran esan dudan moduan, uste dut Aspacek asko eman didala. Aspace, eta gizarte zerbitzuak oro har, beste mundu bat dira. Pentsatzeko beste modu bat eskaintzen digute. Ikusgarritasunaz eta gizartearen parte izateaz hitz egiten dugun arren, gurea bezalako elkarteetan kalean ez dauden egoerak aurkitzen dituzu. Gizarte honetan badago pertsona multzo bat, gainerakoon eskubide berberak izanda ere eskubide horiek gauzatzeko zailtasun pila bat dituztenak. Zailtasun horiek gainditzeko eta oztopoak leuntzeko beharrezkoa da denok kontzientziatuta egotea. Neu ez nintzen kontziente duela urte batzuk, baina begiak ireki dizkidate. Barrutik beste modu batean ikusten dituzu gauzak. ■■■

GUKA



IMANOL LAZKANO ETA JUANITO DORRONSORO

**BI BIZITZA
KONPAS BEREAN**



Euskararen plaza gara,
herriaren irudia eta
komunitatearen ahotsa



**HEDABIDEKIN
ERE BAI**

ENTZUN ETA IKASI



ANDONI ELDUAIEN

Hizkuntzarekin jolas egitea da bertsolaritza, kantua eta hitza uztartuz lortzen den emaitza da bertsoa; bat-bateko sorkuntza da. Tradizioa, literatura, folklorea... Hori guztia ere bada bertsolaritza, baina baita komunikazioa ere. Bertsolaritza entzuleekin nahiz inprobisatzaileekin –bertsolariak– komunikatzea da. Bertsorik ez da sortzen komunikaziorik ez badago, eta kazetariok artikuluak idazteko jarraitu behar izaten ditugun egiturak bezala, bertsolariak ere hainbat baldintza bete behar izaten ditu bere mezua bertso bihurtzeko; izan ere, bertsolaritza komunikazio neurtua, errimatua eta kantatua da. Hizkuntza zaila da kanpotik bakarrik ezagutzen dugunontzat, baina, era berean, gozagarria. Zer ez du bertsolaritzak?

Euskarak une zailak igaro behar izan ditu historian zehar, baina, halere, euskaldunok mendez

mende lortu dugu aurrera egitea. Gure-gureak diren gauzak kentzen saiatu diren une bakoitzean ere, jakin dugu horiei eusten; finean, zailtasunen aurrean egokitzen asmatu du herri honek. Euskarak bezala, ordea, bertsolaritzak ere sasoi latzak bizi behar izan zituen, besteren artean nabarmena izan zen Francoren diktadura garaia. Bertsoa ezkutuan egon zen urte haietan guztietan, baina, ondoren, jakin zuen berriz ere burua atera eta plazara iriteten. Askoren artean, Imanol Lazkanori eta Juanito Dorronsorori esker. Ezinbesteko tresna izan da bertsoa Euskal Herriak bizirik iraun dezan.

Egun ezagutzen dugun bertsolaritza ulertzeko, ezinbestekoak izan dira azpeitiarra, ataundarra eta bertso munduko beste zenbait lagun. Diktadura garaian zenbaitek ezkutuan edo preso zirela egindako lanak biziberritu zuen bertsoa. Eta gero, baserritik kalera eraman

zuten bertsoa; bete-betean asmatu zuten orduan, hala lortu baitzen bertsolaritzari bizia ematea. Orain, hamarkada batzuen ondoren, arnasa sakon eta lasai hartzen du bertsoaren munduak.

XXI. mende honetan bizi garren euskal herritarrok aurreko euskaldunek egindako lanen emaitzak besterik ez ditugu jaso. Asko zor diegu lagun horiei guztiei. Hala eta guztiz, badut kezka bat neure baitan. Nola eman behar diegu guk etorkizuneko euskaldunei aurrekoek guri eskainitako guztia?

Inoiz baino garbiago dut idatzizko hizkuntzak baino indar handiagoa izango duela gero ere ahozkoak, eta horretarako, bertsoa izango dela tresnarik baliagarrienetakoa. Entzunez ikasten da gehien; beraz, jarraitagun belarriak zut Lazkano eta Dorronsoro bezalako pertsonen aurrean. Nire txaloak eta miresmena zuentzat.

Argitaratzailea: Urolako Komunikazio Taldea

Zuzendaria: Onintza Lete Arrieta

Tirada: 4.700 ale



Enpresa laguntzaileak:



DANOBATGROUP



BERTSOAZ PUNTUKA

Imanol Lazkano eta Juanito Dorronsoro

Bizitzaren zati handi bat igaro dute bertsoa lantzen Imanol Lazkanok eta Juanito Dorronsorok. Lanketa gauzatzeko, baina, bi bide desbedin hartu zituzten azpeitiarrak eta Zumaiaiko bizilagunak: plazan eta agertoki gainean ibili da urte askoan Lazkano, eta doinuak biltzen Dorronsoro. Finean, hitzak eta doinuak uztartzea da bertsoa. Biek parte hartu zuten bertsolaritzaren etorkizunaz eztabaidatzeko saioetan, eta pertsona garrantzitsuak izan dira bertsolaritza kaletartzeko prozesuan.

Testua: **Andoni Elduaie Soraluze**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Bertsolaritza inork baino hobeto ezagutzen dute Imanol Lazkanok (Azpeitia, 1936) eta Juanito Dorronsorok (Ataun, 1936), eta, era berean, biak ezinbestekoak dira bertsolaritza ezagutzeko. Hamarkadaz hamarkada, bertsoaren alde lan asko egin du bikoteak. Euskal Herriko plaza gehienak ezagutzen ditu Lazkanok, eta badaki txapelketetan parte hartzea zer den; izan ere, Gipuzkoako Txapelketako finalista izan zen 1962an eta 1964an, baita Euskal Herrikoan ere, 1982an eta 1989an. Gainera, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen lehendakaria izan zen azpeitiarra 1987tik 2005era arte. Dorronsoro, berriz, ikastolen mugimenduaren sortzaileetako bat da, eta gerora, bertsolaritza hezikuntzan txertatzeko ahalegin handia egin zuen. Bertsoari lotutako material pedagogikoa sortu zuen eskoletarako, eta lanketa berezia egin zuen doinuak biltzen; 3.000 melodia baino

gehiagoko doinutegi bat bada, besteak beste, Dorronsororen lanari esker.

Lazkano eta Dorronsoro, aspalditik ezagutzen duzue elkar. Gogoan duzue non ezagutu zineten?

Imanol Lazkano: Oker ez banago, 60ko udazkenean, Ordiziako [Gipuzkoa] feria egunean egin zen txapelketan ezagutu genuen elkar. Soldaduskatik itzuli berria nintzen orduan, eta txapelketan parte hartu nuen.

Juanito Dorronsoro: 1959an egin nintzen apaiz, eta Gaintzan [Gipuzkoa] egon nintzen urte batzuetan. Herri hartan hasi nintzen bertsolaritzara hurbiltzen. Ordizian bertso jaialdia zegoenez, motoa hartu eta hara joan nintzen. Txapelketa hartan ezagutu nuen Lazkano.

Gogoan al duzue noiz sortu zen bertsoaren eta zuon arteko harremana?

I.L.: Gogoan dut, umea nintzenean, aitonak koplak abesten zituela. Hizketan hasi nintzene-



rako mozkortu nintzen bertsoarekin. Beti izan dut bertsoa buruan, eta oraindik ere hor jarraitzen du korapiloak. Bertsoarekin amets egin, bertsoarekin jolastu eta bertsoaren munduan sartu nahi nuen. Zortea izan nuen, inguruan giro hori baibaitzegoen Agirre eta Lizaso bertsolariekin. Horien inguruan hasi nintzen, pixkanaka, plaza batzuk egiten.

J.D.: Ataundarra naiz, eta han ez zen bertsozaletasun handirik. Lizaso inoiz ikusi nuen festetan, baita Uztapide ere, baina Gaintza Ataun baino bertsozaleagoa zen. Apaiz egin berria nintzen, eta Gaintzako San Migel jaietan bertso saioa izan ohi zen ekintza garrantzitsuena. Baxarri eta Uztapide joan ohi ziren, Lasarte ere bai aldian behin, eta udaletxeko balkoitik jarduten zuten kantuan.

Gero, bertsoari alea ematea erabaki zenuten. Erraza izan al zen hastapen sasoia?

I.L.: Bertsoa zaila da. Hartu nuen muturreko bakoitzarekin izutu izan banintz, aspaldi lagako niokeen. Bertsoa neurritz kanpoko zerbait da, ordea. Anormal puntua ere behar da horrenbeste aldiz bertsotan hasi, jendaurrean garrantz bukatu eta mundu horretan murgilduta jarraitzeko. Bertsoa gure bizitzako bizio izugarri bat izan da.

J.D.: Saturrarango apaizgaitegian egon nintzen, eta kantu asko abesten genituen han. Oso lotuta daude bertsoa eta kantua, kantu asko bertsoa baitira. Boga-boga liburuxka ere ateratu genuen, eta Gipuzkoako apaizgaiok kantuak zabaltzeko saiakerak ere egin genituen gero. Bizkaiko Ikastolen Federazioak eskatuta, Saio-ka izeneko euskara liburuak ere egin nuen. Zumaian, berriz, ikastola sortu genuen, eta han abestiak zein bertsoak irakasten aritu nintzen. Kontua da ikastolak handitzen ari zirela eta ez zegoela argi zer irakatsi. Hori dela eta, oso egokia ikusi zen kantagintza eta bertsolaritza irakastea, eta mundu horretan sartu ginen. Gero, Imanolekin-eta batera, bilerak egiten hasi ginen, bertso eskolak nola sortu zitezkeen aztertzeko.

Bertso eskolak aipatu dituzue. Zergatik eman zenuten eskolak sortzeko pausoa?

I.L.: Arrasateko [Gipuzkoa] Patxi Goikoleak-eta egin zuten bertso eskolak sortzeko apustua,

eta Sarasua anaiek, Arantxa Loidik eta beste batzuek eman zuten izena eskolan. Autoa hartu eta bertso saioak entzutera eramaten zituzten gazte haiek izugarritzko maila eman zuten urte batzuk geroago. Garai batean, baserriak ziren bertso eskolak. Asteburuetan, aldiz, tabernan asko egiten zen bertsotan. Baina baserria galtzen hasia zen, eta arriskuan zegoen baserri giroa ere. Kaletartzea behar zuen bertsolaritzak, bestela, baserriarekin batera joango zatekeen hankaz gora. Horregatik zegoen eskoletan bertsolaritza irakasten hasi beharra. Amuriza kartzelan sartu zuten gero, eta espetxean zela lan ikaragarria egin zuen; alde batetik, bere burua bertsolari bezala lantzen, eta bestetik, errima liburuak egiten. Espetxetik atera zenean, ordurako sortuta zeuden eskoletara zabaldu zen Amurizaren materiala, eta horrek indar handia eman zion bertsolaritzari. Eskolei esker, jende berria sartu zen taldean, eta ideia berriak ekarri zituzten horiek. Gu bertsoekin mozkortuta geunden, baina baita Juanito bezalako bertso eskoletako jendea ere. Guzti horri esker ailegatu da bertsolaritza gaur dagoen lekura.

J.D.: Elgoibarko [Gipuzkoa] ikastolan elkartu ginen gai horiei buruz hitz egiteko. Patxi Goikolea ikastolen elkartera zuzendu zen, eta hark esan zuen eskolak zabaldu eta antolatu egin behar zirela. Eztabaida batzuk ere izan genituen, bertso eskoletan zer irakatsi behar zen erabakitzerakoan. Batzuk umeen gustuko bertsoak sortzearen alde zeuden, eta besteak, bertsolari zaharren ale onak jaso eta horiek ikastoletan irakastearen alde. Azkenean, bertso zaharrak pilotzea erabaki genuen, eta niri eman zidaten hori egiteko mandatua. Hala, Euskal Herriko bertsolari onenen bertsoen antologia batu nuen. Bete-betean murgildu nintzen bertsolaritzan, eta Bertsotan liburuak ateratu genituen Ikastolen Elkartearekin batera.

Zer da bertsoa zuentzat?

I.L.: Nire amets garrantzitsuenen gailurra izan da bertsoa, bestela ez dago horrenbeste urtean aritzerik. Bertso saio asko egin ditut, eta gozatu, oso gutxitan gozatu dut. Norberak dituen exijentziek esaten dute zer maila eman; izan ere, exijentziari begira lantzen da burua. Itzuli izan naiz etxera gehiago bertsotara joateko



"Nor bere baitan egiten den gimnasiak burua janzten laguntzen du"

"Sekulako zaratarekin erronka jotzen duen politikariak baino lan gehiago egiten dute herrietako kulturzaleek"

"Bertsoak badu halako gauza polit bat hizkuntzaren barruan, eta gu horrekin maitemendutako pertsonak gara."

Imanol Lazkano

gogorik gabe. Halere, gero, gehiagorako nahia pizten zidan barruko eraginak. Etengabeko borroka da bertsolariena; norbere buruarekin estua izan behar da, gauzak txukun eta akatsik gabe egiteko. Nor bere baitan egiten den gimnasiak burua janzten laguntzen du.

J.D.: Jolasa da; kanta eta sorkuntza den aldetik, gustagarria da niretzat bertsoa. Gero eta gehiago harritzen naiz bertsoa momentuan eta horren azkar sortzen dutela ikustearekin. Gainera, bertsoa oso baliabide ona da historia ezagutzeko. Euskal Herriak idatzitako historia gutxi du, baina oso aberatsa da kantutegietan bildu den ahozko literatura. Era berean, oso bitarteko ona da gazteak hezteko nahiz euskalduntzeko eta Euskal Herriaren etorkizuna indartzeko.

I.L.: Sufritu egin dudala esan dut lehen, baina, gozatu ere, asko gozatu dut. Euskal Herriko herri eta herrixka guztietan izan gara ia. Herri bakoitzean egon ohi dira kulturarekiko kezka duten eta horretan eragin nahi duten pertsona bat edo bi, eta horiek dira niretzat Euskal Herriaren arima, jende horrek eutsi baitio bizirik euskal kulturari. Sekulako zaratarekin erronka jotzen duen politikariak baino lan gehiago egiten dute herrietako kulturzaleek. Lan isila

egin dute, eta gainera, askotan beraien patriketako dirua gastatuz. Lagun horiek gertutik ezagutzeko aukera izan dut, eta babesa zein mimoa eman dizkidate. Ikaragarritzko zortea izan dut.

Zerk uztartzen ditu eskola eta plaza?

I.L.: Bertsokak. Bertsolaria bertsozale itsua den gisan, bertso eskoletan dabilen jendea ere bertsozalea da, nahiz eta ez sentitu bertsolaria. Bertsokak badu halako gauza polit bat hizkuntzaren barruan, eta gu horrekin maitemendutako pertsonak gara.

J.D.: Imanol eta biok elkarrekin ibili gara azken urteetan egin diren gauza garrantzitsuenetan. Sustrai-sustrai aritu gara, hala nola bertso eskolak sortzen eta bertsolarien zein bertsozaleen elkarteak sortzen. 1984ko txapelketa sortzeko ere bildu ginen.

I.L.: Bertsolari batzuk ez ginen konforme azaldu 1982ko txapelketan. 1984koa antolatu behar zela esan zutenean, Euskaltzaindiari eskaera batzuk egin genizkion, baina ez zituen onartu gure baldintzak. Izena emanda zeuden bertsolariekin elkartu ginen, eta guztiek baja eman zuten txapelketan. Euskal Herria bertsolari txapelketarik gabe gelditu zen orduan. Loiolan elkartu ginen gero, beste bilera bat egiteko. Bertsolaria antolatzeke alferra da izatez, baina alferrek jakiten du zein den gauzak ondoen antolatzen abila. Ordurako ezagutzen genituen herri bakoitzeko bertsozaleak, bagenekien zeintzuk ziren Euskal Herriko arimak, eta horien hautaketa egin genuen. Juanito zen horietako bat. Ilusio handiz hasi ginen lanean, eta emaitza bezala, oso arrakastatsua izan zen 84-85 urteetako txapelketa. Betekada batzuk-eta izan ohi ziren lehen ere, baina Donostiako Belodromoa goraino bete genuen urte hartako finalean. Guztiok bat izanik, lehen baino indar gehiago egin genuen, eta hori abiapuntu hartuta antolatu zen 87ko txapelketa.

J.D.: Bertsozale elkarte oso garrantzitsua da bertsolaritzaren etorkizunerako. Elkarteak egituratu egin du bertsolaritza, besteak beste txapelketak antolatuta eta bertso eskolak martxan jarrita. Aztertuta dute etorkizunean zer egin behar den, eta Euskal Herriko lurralde guztietan ondo finkatu da. Oso burutsu jokatu

du elkarteak. Beste alor guztietarako inbidia-garria da bertso munduan sortu den elkarte. Halako bakarra da euskal kulturaren.

Lehenago bertsolaritzaren eta egungoaren trantsizioa barru-barrutik bizi duzue. Ez dago zuek baino pertsona hoberik bertsoa zertan aldatu den esateko.

I.L.: Beti esan izan da, eta arrazoi guztiarekin, bertsolaritza herriaren ahotsa dela. Bertsolaria herriaren ahotsa bada, eta herria urtez urte aldatzen doanez, herriarekin batera joan behar dute bertsolariak, eta ahal badute, aurretik. Elkartean ikasketak zituen jendea sartu zen. Aldaketa hori nabarmena zen gizartean, eta bertsolaritzan ere derrigorrez eman beharreko pausoa izan zen. 14 urte bete arte ibili nintzen Azpeitiko Maristetan, eta, halere, bertsolari zaharragoak baino ikasiagoa sentitzen nintzen. Oso eskola gutxi zuten Lasartek, Agirrek, Liza-sok edota Uztapidek; Baxarri zen eskolatuen. Orain, berriz, azken txapelketetako finalistei begiratzea nahikoa da; finalista guztiak dira unibertsitate ikasketadunak. Horrek guztiak izugarritzko aldaketa ekarri du bertsolaritzara.

J.D.: Ez nuke lehenago eta egungo bertsolaritzaren banaketarik egingo. Gizartea etengabe ari da aldatzen, baita bertsolaritza ere, hala nola adierazteko eta kantatzeko moduak, eskolak eta entzuleak. Bertsolarien publikoa lehenago erakoa zen, baserritarrena. Orduan, bertsoa entzuten zuena baserriko jendea eta adindua zen, gazteak ez baitziren saioetara joaten. Azken finean zahartzen ari zen bertsolaritza. Esango nuke bertsolaritzak izan duen krisialdirik handienetakoa izan zela hura, eta horregatik sortu ziren bertso eskolak. Bizirik dauden euskal erakunde guztiek beti izan dute egokitzeke gaitasuna. Hori ez da gelditzen, eta ez dadila gelditu.

I.L.: Gaur bezain ondo ez da sekula egin bertsoan; egungo perfektiorik ez da inoiz ikusi. Baina aurrerapausoa ematen den bakoitzean, zerbait puskatu egiten da hanka azpian. Esaterako, bertsoak lehenago bizitasun puntua galdu egin du. Bozgoragailurik gabe abesten zen lehen, eta horregatik, abesteko modua ere aldatu egin da; izan ere, plazan aritzeko abeslari ona izan behar zen lehen, adierazten jakin



"Beti izan dut bertsoa buruan, eta oraindik ere hor jarraitzen du korapiloak"

"Beste alor guztietarako inbidiagarria da bertso munduan sortu den elkarte"

"Bizirik dauden euskal erakunde guztiek beti izan dute egokitze gaitasuna"

Juanito Dorronsoro

behar zen; ondo eta harro kantatzeak asko esan nahi zuen orduan. Gaur ere badira ondo kantatzen dutenak, baina, oro har, desberdina zen bertsolari zaharrek zuten kantatzeko era. Gaur egun, kantaerari baino garrantzia gehiago ematen zaie beste gauza batzuei. Pikardia eta elkarri adarra jotzeko giroa galdu egin da, gizarteak berak ere galdu egin baitu umorea.

J.D.: Lehengo bertsolariak kantariagoak ziren. Plazan ez zegoen mikrofonorik eta behar-beharrezkoa zen ondo kantatzea. Are gehiago, kantua asko estimatzen zen. Azkarrago ere abesten zen lehen; orain, aldiz, patxada gehiagorekin aritzen dira.

1936an lehertu zen Espainiako gerra, eta orduan jaio zineten biok. Ondorengo urteak ez ziren inolaz ere errazak izan. Zertan eragin zuen bertsolaritzan?

I.L.: Oso urte zailak izan ziren. Baxarrik 1935ean jantzi zuen txapela, eta gero kartzelan sartu zuten. Harrezkero, baserritarren batzuk ferietan egingo zuten agian bertsotan, baina bertsolariek debekatuta izan zuten plazan kantatzea. 60ko hamarkadak aldaketa handia ekarri zuen Euskal Herrira, eta hamarkada hartan eman zuen bertsolaritzak ere kaletartzeko pauso handiena. Onerako edo txarrerako ETA ere



orduan sortu zen. Apaiztegietan eta komen-tuetan ibilitako gazte jendea kalera atera zenean, iraultza giroko mundua sortu zen Euskal Herrian, eta orduan hasi ginen, Azpillaga eta Lopategi buru zirela, politikaren inguruko bertsoak abes-ten. Kaleko jende batek ez zuen jarraitzen bertsolaritza, baina iraultza mugitu zuten gaz-teek ikusi zuten bertsolariok gai politikoak erabiltzen genituela. Haiek bertso munduarekin ekintzak antolatzen ere hasi ziren gero, baina bertsolari guztiek ez zuten hura onartu, gai politikoak bertsotarako ez zirela iritzita. Kritikak ere izan ziren tartean, baita kartzelan sartutako eta isunak ordaindutako bertsolariak ere. Kon-tua da, ordea, bertsolariak kaleko gazte jen-dearengana iristea lortu zuela, eta orduan ka-letartu zela ordura arte horren baserritarra zen bertsolaritza. Horri guztiari esker iritsi da ber-tsolaritza iritsi den mailara.

J.D.: Tunel beltza izan zen sasoi hura. Francoren diktadura beldurgarriak amets bakarra zuen: Euskal Herria lur eta mapa honetatik desagitea; egurra besterik ez zen izan orduan. Idazle zein

euskaltzale askok Ipar Euskal Herrira egin behar izan zuten ihes, edo bestela, mutu geratu. Urte batzuen ondoren, eta poliki-poliki, arnasa har-tzen hasi zen herria. 60ko hamarkadan aro berria hasi zen alde askoren partetik. Mitxele-na bertsolariak zioen harrigarria zela bertsola-ritza horren zaharra izatea. Niri, ordea, beste zerbaitek sortzen dit misterioa: herri hau horren txikia izanda, handia da bertsoak horrenbeste urtean nola eutsi ahal izan dion ikustea.

Irudikatzen al zenuten bertsolaritza gaur dagoen puntuan?

I.L.: Inork ez zukeen sinetsiko.

J.D.: Nik ere ez nuen uste. Bertso eskolarik gabeko bertsolaririk ez dago egun.

I.L.: Sekulako maila dago. Bertsoa hitzekin jolas egitea da. Ikaragarria da orain zenbat bertsolarik erakusten duten buruan eginda daukaten ariketa. Andoni Egañak edo Maialen Lujanbiok esaten eta idazten dituzten hitz horiek, Biba Zuek! saioko aurkezleek duten hizketara-ko modua... Alaia Martini irratiz elkarrizketa egin diote elkarrizketara nentorrela, eta zer-no-lako gaitasuna erakutsi duen gauzak esateko... Punta-puntan dabiltzan bertsolariek hitzarekin jolas egiteko gaitasun handia erakusten dute.

Bertsolariak gizartearekin batera, edo kasu ba-tzuetan, aurrerago joan behar duela esan duzue.

Nola irudikatzen duzue etorkizunean?

I.L.: Nahiz eta jende asko dabilen bertso esko-letan, nahikoa zabaldua dagoen kezka da hizkuntzaren erabilerak zenbaterainoko irau-pena izango duen. Ez al da erdaraz gehiegi egiten kanpoan? Ez dakit hizkuntzaren erabi-lerak nolako indarra izango duen etorkizunean, baina erabilerak bizirik irauteen duen bitartean, ziur nago bertsolaritzak ere iraungo duela.

J.D.: Euskara bera galtzeko arriskua ikusten dut neuk ere. Euskarari eusten bazaio eta zeha-ro galtzen ez bada, etorkizun oparoa izango du bertsolaritzak. Emakumeen olatua ere haz-ten ari oraindik, eta uste dut hori gehiago in-dartzeko eta parekatzeko zeregin handia da-goela.

Epaile lanak ere egin izan dituzue. Eginkizun zaila al da besteen lana epaitzea?

I.L.: Oso-oso zaila. Gainera, munduan ez da-goela bertsoa ondo neurtuko duen inor esate-

ra ausartuko nintzateke; ezinezkoa da. Euskaldunak garen bezalakoak gara, norgehiagokarako eta apusturako grina dugu oraindik, eta txapelketek eragin handia dute. Errima aldetik ona izan daiteke bertso bat, edo egundoko arrazoia emanda, izan dezake errima akats txikiren bat besteren batek. Kasu horretan, zeri eman behar zaio balio handiagoa? Pisatzen eta neurtzen den jeneroa balitz bezala neurtzen da bertsolaria, baina bertsoa neurtezina da. Ateraldi bizi bat gusta dakioke bati, hizkuntzaren perfektzioa bigarrenari eta kantaera hirugarrenari. Nire ibilbidean bertsolari asko ezagutu ditut, baina oraindik ez ditut bi bertsolari berdin ikusi; guztiak dira desberdinak.

J.D.: Askotan izan genituen eztabaidagai txapelketak, horiek norgehiagoka bultzatzen baitzuten. Lehia ez da ona, baina orduan beharrezkoa ikusten zen. Imanol [Lazkano] bertsopaper lehiaketetako epaimahaikidea izana da askotan, eta gogoan dut behin bota zuen esaldi bat. Sarritan errepikatu izan diet bertsolari gazteei, epaimahaikide aritzen bainaiz neu ere Zumaian. Norbait urduri ikusten dudanean, Imanolek esandakoa gogorarazten diot: “Joan hadi lasai txapelketara, ondoen eginda ere, gaizki egingo duk eta”.

Gero eta emakume gehiago ari da batzen bertsolaritzara. Zer egoeratan ikusten duzue parekidetasuna bertsolaritzan?

I.L.: Beti izan dira emakume bertsolariak Euskal Herrian. Gure amonek eta amek zenbat bertso abestu ote dizkiete beraien haurrei... Elizak bertsotan jardutea mozkorren kontua zela esaten bazuen, zer esango ote zukeen emakumeak tabernan gizonezkoekin bertsotan ikusi izan balitu. Sorginak erre egin baldin bazituzten, ez dakit haiei zer egingo lieketen. Nahiz eta bertsotarako sena bazuten, emakumeek ez zuten bertsolari izaterik. Dena den, orduan ere aritzen ziren emakumeak bertso zaharrak ikasten eta etxeko haurrei kantatzen zein irakasten. Bertso eskolak martxan jarri eta emakumeak onartzen hasi zirenean, ikusi besterik ez zegoen horiek zuten maila zer-nolakoa zen. Ez zen gaitasunik ez zutela, gaizki ikusia zegoela baizik.

J.D.: Egituran zegoen emakumea zapalduta, eta hala dago oraindik ere. Zumaiko bertso



eskolan, esaterako, ez zegoen alderik nesken eta mutilen artean. Gero, ez dakit zergatik, baina mutilak hasten ziren nabarmentzen; neskak, aldiz, bazterrera gelditzen ziren. Hori gertatzen zen lehen, eta gertatu egiten da orain, nahiz eta gutxiagotan izaten den.

I.L.: Neskak tabernan bertsotan ikusteak kezka puntua sortzen zion jendeari lehen, eta bertsolariak berak ere lotsa puntua izaten zuen. Mutilak bertsotan pixka bat egiten baldin bazuen, berriz, txalotu egiten zen.

Bertso doinutegiaren aita zara Juanito. Lanketa handia dago horren atzean...

J.D.: Emazteak eta biok bakarrik dakigu hori. Ikastoletako umeek zer kantatua izan zezaten, antologia bat egiteko eskatu zidaten. Bertsotan izeneko bi bilduma egin nituen, bertso onenak jasoz. Era berean, doinuak solfeoan idatzita jasotzeko ere eskatu zidaten, eta kasete batzuk ere egin genituen Imanol Urbietarekin, abestutako doinuak jasota geldi zitezen. Musikaz asko ez dakit, baina bai horretarako adina. Gainera, bidezkoa iruditu zitzaidan neurri be-

reko doinuak elkarrekin sailkatzen hastea, hori interesatzen baitzaie gehienbat bertsolariei. Lanketa horretan ari nintzela, kantutegietan milaka doinu zeudela ikusi nuen. Ikaragarritzko lana zegoen egiteko, eta poliki-poliki hasi nintzen doinu guztiak izendatzen, askok izenik ere ez baitzuten. Guztiak biltzen, ordenatzen eta solfeorako idazten aritu nintzen. Izugarritzko lana izan zen, eta urte asko pasatu nituen horretan, ordura arte inork egin gabeko zerbait zelako. Doinutegia izena jarri nion, eta gero, bertsozale elkarteak lagunduta, Internetera eraman genuen.

I.L.: Harritzeko moduko lana du eginda Juanitok. Biziatu egin zen, bera den bezalakoa delako. Euskal Herriak badu Juanitorekiko zor bat, inoiz ordainduko ez dion zorra.

Zuk, Juanito, 2013ko Euskal Herriko Txapelketan txapela jantzi zenion Amets Arzallusi. Bertsoaren alde egindako lana aitortu zizuten orduan. Nola bizi izan zenuen une hura?

J.D.: Ilusio handia egin zidan Arzallusi txapela janzteak. Pozik eta gustura negoen, herriaren aurrean aintzat hartu nindutelako.

I.L.: Zer gutxiago! Juanitori jendaurrean txalo jo zaion une bakarra izan da. Juanitok adina lan egin duen pertsona gutxi egongo da. Ordura arte sekula ez zitzaion publikoaren aurrean aitortzarik egin.

Lazkano, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen lehendakaria izan zinen. Nola gogoratzen duzu garai hura?

I.L.: Biltzen ginen taldeko kideen artean nagusia nintzen, eta norbait jarri egin behar zenez, ni izendatu ninduten. Ez nuen sentitzen lehendakaria izateko gaitasuna nuenik. Sarasuak-eta esaten zidaten lehendakari postuan jartzeko, eta behin baino gehiagotan, honakoa esan nien: "Nik ez diot ezer ukatzerik bertsolaritzari, baina zalantza dut mesede gehiago egingo al diodan karguan jarraituta edo utzita". Halere, eman nuena baino gehiago jaso nuen elkartearen lehendakari izan nintzen urteetan. Borondate handiko jende asko zegoen orduan, hala nola Andoni Egaña, Jon Sarasua, Iñaki eta Jesus Murua, Koldo Tapia... Iñaki Murua ni baino egokiagoa zen lehendakari izateko, eskolatuagoa, eta gainera, irakaslea. Gaitasun

handiko pertsona ona da Murua. Lehenago ere esan nion lehendakari kargua hartzeko, baina tarterik ez zuelako baztertu egiten zuen. Urte batzuk beranduago, halere, kargua hartzera animatu zen, eta ikaragarritzko poza hartu nuen. Muruak lan handia egin du elkartearen.

J.D.: Bertsolaritzaren motorra da Euskal Herriko Bertsozale Elkartea.

I.L.: Jende askoren iritzia jaso da, eta jende askok egin du lana, isilpeko lana.

Urte haietan zertan egin zuen lan elkarteak? Non jarri zenuten indarra?

I.L.: Bertsolaritzak arazo pila bat zituen orduan. Garai hartan, Joseba Arregi zen Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua. Jaurlaritzari laguntza eskatzen genion urtero, eta beti paso egiten zuen. Behin horrela, Arregik deitu zigun Bilbora joateko. Koldo Tapia artean ez segoen elkartearen, Jesus Murua bakarrik zegoen. Bilbora joan ginenean, sekulako bazkaria eman ziguten; horixe bakarrik balekoa. Arregik galdetu zigun zer proiektu genuen eskuartearen, eta Tapiak hiru proiektu mota aurkeztu zizkion. Guztira, 13 milioi pezetako aurrekontua zuen gure proiektuak. "Gustatu zaizkit, aurrera. Eusko Jaurlaritzak ordainduko ditu horiek", erantzun zigun Arregik. Orduan, Tapiak bere lantokia utzi zuen, bertsozale elkartera batzeko. Jendea buru-belarri murgildu zen proiektuetan, eta ohartzera-ko, diru guztia gastatu genuen. Pezeta bat emateko pezeta bat falta izaten omen da, eta azkenean, zentimo bakar bat ere ez zigun eman Jaurlaritzak. Bilboko Guggenheimen orduan hasi zen mugimenduan, eta diru guztia han inbertitu zutenez, ez genuen dirurik jaso. Sekulako zorrak egin genituen, eta elkarte hantza gora gelditu zen; zer egin ez genekiela geunden. Arantxa Mariskalek, Koldo Tapiak eta Jesus Muruak bilera batera deitu gintuzten orduan, eta han esan zigutena ez dakit beste inon gertatu ote den: baimena eskatu ziguten gizarte segurantzaren baja eman eta elkartearen alde lana musutruk egiteko. Proiektua horrela uzterik ez zegoela ulertzen zuten, eta haien bikoteak lan egiten zutenez, moldatuko zirela esan ziguten. Elkartearen egoerari buelta eman nahian ari ginen orduan, eta handik gutxira, Egaña irabazi zuen Euskal Herriko txapela.



Ordura arte hura ez zen gehiegi sartu elkartean, baina txapela jantzi eta hurrengo egunean elkartearen egoitzan aurkeztu zen 09:00etarako. "Lotsa pixka bat ematen dit orain arte elkartean kolperik egin ez izanak. Orain txapela jantzi dut, eta zer dut egiteko?", galdetu zuen. Kontuak horrela, elkartearen hiru proiektuen buru jarri ziren Egaña, Sarasua eta Murua. Bakoitzak bere taldetxoa eratu zuen, eta orduan hasi zen elkartea benetan gora egiten; sekulako indarra hartu zuen, baina ez Jaurlaritzari esker. Amaitu berri zen txapelketak ere utzi zuen diru pixka bat, eta baliagarria izan zen lanerako. Handia izan zen hura.

J.D.: Agintariekin ezin da guztiz bat egin. Bertsolaritza beti izan da agintariekin kritikoa, eta hori askatasun handia da herriaren alde jokatu nahi bada.

I.L.: Bertsolaritza ez dute onartu historian zehar. Bertsolariak gauzak esaten ditu herriaren aurrean hitz egiten hasten denean, eta sarri askotan min ematen du. Politikariek eta Elizak ez dute sekula bertsolaritza begi onez ikusi, gorrotatu egiten zuten. Mozkorren eta gaizkizaleen mundua zela ere esan ohi zen. Behin horrela, gotzain ugari elkartu omen ziren Oñatiko [Gipuzkoa] Unibertsitatean egin zen batzar batean. Manuel

Lekuona apaiz gazteak aztertuta zuen ordurako bertsolaritzaren historia, eta guztien aurrean esan omen zuen bertsolaritza lau mozkorren historia baino zerbait gehiago zela; bertsolaritza herriaren ahotsa zela esan zuen.

J.D.: Oso prestigio gutxi zuen bertsolaritzak, bai. Karmelo Etxegarai bera ere ez zen bertsozalea, eta horien aurrean prestigio handia eman zion Lekuonak bertsolaritzari, nola intelektuali hala aztertzerakoan. Ahozko literaturari buruzko liburu bat ere idatzi zuen. Lekuonarentzat kultura ez zen goi mailakoena eta idatzitakoa bakarrik; hura bezain garrantzitsua zen herriaren kultura adierazten zuen bertsolaritza. ■



Ikusi eskusiban Imanol Lazkano eta Juanito Dorronsorori egindako elkarrizketaren bideoa QR kodea eskaneatuta.



Desnibela 223m
Zailtasuna ●●●●●
Luzera 9,8km
Denbora Zordu 7 minutu

Erreferentziak
0.00 Amenabar auzoa
1.19 Itaun Iturria
1.30 Hidrometeorologiako neurgailua
1.40 Zubia
2.07 Urtegiaren ertza



NUARBEO URTEGITIK BARRENA

MIREIA GALARZA BASTIDA

1991. urtean jarri zuten martxan Ibai-Eder urtegia Azpeitiko Nuarbe auzotik oso gertu, eta harrezkeroztik, urez hornitzen ditu inguruko herriak. Funtzio horretaz harago, baina, urtegiak ibilbide zoragarri bat egiteko aukera ere eskaintzen du. Hain zuzen, urtegia ia bederatzi kilometroko ibilgune zirkular batek biltzen du; oso erraza da egiteko, bai bakarrik, bai familia giroan.

Azpeitiko herriguneko zaratak alde batera utzita, txorien kantua da bertan entzuten den soinu bakarrenetakoa, eta lasaitasuna nahi duenak, erraz aurkituko du han, nahikoa jende gutxi ibiltzen baita normalean inguru horretan. Gainera, ibilbideak ez du galtzeko arriskurik ematen, leku berean hasi eta amaitzen delako. Beraz, urtegiko bi aldeetako edozeinetatik has daiteke txangoa.

Naturaz inguratutako ibilbidea da Ibai-Eder urtegiakoa, baina horrek ez du esan nahi ibilbidean zehar ez dagoenik ezer. Adibidez, nekea sumatzen duenarentzat banku batzuk daude txangoan zehar. Batzuk ez daude oso egoera onean, eta urteko garaia araberaren

artean ezkutatuta gelditzen dira, baina ondo etor daitezke atseden pixka bat hartzeko. Egarrri denarentzat ere badago iturria: Itaungo iturria izenez ezagutzen da.

Urtegiko ibilbideak ematen du aukera inguruko auzoetara joateko: adibidez, Matxinbentara eta Nuarbera. Bide horiei buruzko panel informatiboak daude ibilbidearen hasieran, errepidetik oso gertu.

Zalantzarik gabe, goiza edo arratsaldea aprobetxatzeko aukera paregabea eskaintzen du Ibai-Eder urtegiak.

Motzean

- UK04 linea Nuaretetik pasatzen bada ere, onena autoz bertaratzea da, inongo presarik gabe. Urtegi parean autoa utzi, eta ibilbidea hasteko prest!
- Urtegiak Ibai-Eder erreka biltzen du, 223 metroko garaieran dago, eta guztira 11,3 hm3ko edukiera du. ■



Ikusi eskusiban Xabat Olaizola eta Luis Gurrutxaga Nuarbeko bizilaguna txangoan, QR kodea sakelakoarekin eskaneatuta.



TELEBISTAN ERE

GUKA!
erto



NON DAGO UZTARRIA?



Lehiaketan parte hartzeko aurkitu aldizkarian Uztarrria pertsonaia eta bidali erantzuna lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara abenduaren 18a baino lehen. Bazkidearen izena eta telefono zenbakia zehaztu behar dira.

Saria: Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta.

Azaroko Uztarrria aldizkarian Uztarrria pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 28. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta Beatriz Odriozola bazkidea izan da irabazlea.



URDAIAZPIKO,
HESTEBETEAk eta GAZTAK

Etxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOA



Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damazo Azkue 6
AZPEITIA

"Panderoak jende eta bazter pilo bat ezagutzeko aukera eman zidan"

JUAN EZENARRO 'BERASTEGI' PANDERO JOTZAILEA ETA ARTZAINA

80 urte bete ditu aurten Juan Ezenarro 'Berastegi'-k (Azpeitia, 1941). Euskal Herriko txoko ugari alaitu izan ditu panderoarekin urte askotan zehar. Eta ez hori bakarrik, Kupela taldeko bateria jotzailea ere izan zen. Egun, oholtzetatik aldentuta, gogoan ditu musikaren bueltan izandako bizipenak.

Testua: **Nagore Aizbitarte**. Marrazkia: **Olatz Alkorta**. Argazkiak: **Nagore Aizbitarte eta utzitakoak**.

Haren ibilbidea panderoarekin estu lotuta badago ere, soinua izan zen Juan Ezenarro *Berastegi* esku artean izan zuen lehenengo instrumentua. Hark dioenez, 15 urte inguru zituela hasi zen soinua jotzen. Soinuak, ordea, ez zuen asko iraun haren musika ibilbidean. Izan ere, Berastegi gaztea baserrian soinua jotzen hasten zenean, ez zuen oso harrera ona izaten: "Arrebek beti isiltzeko esaten zidaten, baina nik ez nien kasu handirik egiten. Halako batean, aita etorri zen, eta soinua hormaren kontra bota zuen". Harrezkero, ez zuen izan soinua berriro jotzeko "ausardia" nahikorik, baina haren bidean beste instrumentu bat gurutzatu zen: panderoa.

Azpeitiarrak beti azpimarratzen du dena bere kabuz ikasi duela, sekula irakaslerik izan gabe: "Garai hartan partiturarik eta solfeorik ez zegoen; belarria jarri eta lana egitea, besterik ez". Haren inguruan musikarekiko zegoen zaletasunak gaztetatik eman zion hainbat erromeriatan eta

festatan parte hartzeko aukera. Berastegik gogoan du garai haietan soinu jotzaileek ez zutela pandero jotzailea berekin eramaten. Soinu jotzaileak berak eramaten zuen panderoa, eta jo behar zuten lekuan norbait animatuz gero, harekin jotzen hasten zen: "Eta horrelaxe hasi nintzen ni, han eta hemen lagun nituen soinu jotzaileekin panderoa jotzen".

Bide horri jarraituz, Euskal Herriko txoko gehienetan jotzeko aukera izan zuen Berastegik, soinu jotzaile "handienak" alboan zituela: Laja, Elgeta, Epelde, Zabaleta, Maltzeta, Tapia, Jauregi... Festetan, erromerietan, ezkontzetan, agurretan... bazter guztietan muturra sartuta ibiltzen zirela dio pandero jotzaileak: "Festa zegoen leku denetara joaten ginen, ondo pasatzen genuen".

Berastegirentzat "oso garrantzitsua" izan da panderoa, eta "oso eskertuta" dago musika tresna horrek bizitzara ekarri dion guztia tarteko: "Panderoak jende eta bazter pilo bat ezagutzeko aukera eman zidan". Azpeitiarrarentzat

BERASTEGI





panderoaren inguruan bildu dituen bizipen eta pertsona denak oso baliagarriak izan dira, eta egindako ibilbidearekin "oso gustura" dago: "Urte asko izan dira, eta atzera begiratzen dudanean, egin dudan guztiaz harro sentitzen naizela esan dezaket".

Panderoa ez da izan, ordea, Berastegik oholtza gainean jo duen instrumentu bakarra: 47 urte inguru zituela hasi zen bateria jotzen. Erromeria batetik bueltan, Berastegi baserriko sukaldean zegoen Lajarekin, eta soinu jotzaileak bateria bat ekartzeko esan zion. Berastegiri ez zitzaion ideia "ona" iruditu hasieran: "Nire ustez, ez zen nik jotzeko moduko instrumentua". Hala ere, bateria azkar iritsi zen Berastegi baserrira: "Hurrengo egunean bateria erosi, kotxean sartu eta etxera ekarri nuen. Lajari deitu nion, eta entseatzen hasi ginen". Panderoa bezalaxe, Berastegik bere kabuz ikasi zuen bateria jotzen ere: "Pixkanaka, balsak, pasodobleak, tangoak... nola jotzen ziren ikasi nuen, eta ondo moldatzen nintzela ikusita, jarraitu egin nuen".

Musika eta artzaintza

Bateriarekin hasitako ibilbide horretan, Kupela taldea gurutzatu zen azpeitiarrarekin. Berastegiren esanetan, bateria edukitzeko "kapritxo" zuten, panderoarekin jada nahikoa ez zela uste zutelako. 12 urte inguru igaro zituen azpeitiarrak Kupelarekin batera oholtzaz oholtza. Urte ederrak izan zirela dio, baina dena ez zela horren "polita" nabarmendu du: "Festetatik bueltan egunsenti pilo bat ikusitakoa naiz, jakinik etxera iritsitakoan lana ere egin behar-ko nuela". Garai hartan, artzaina, eta aldi berean, Kupela taldeko bateria jotzailea izatea tokatu zitzaion, eta hori "batzuetan astuna" egiten zitzaiola esan du: "Erromeria edo ezkontza batean bateria jotzetik itzultzen nintzen, autoa husten nuen eta mendira joaten nintzen ardiekin. Etxera itzuli ondoren joaten

nintzen ohera, jakinik iluntzean berriz bateria jo behar nuela".

Haren arabera, erritmo hori mantentzea zaila zen, eta urteek ez dutela barkatzen adierazi du. Hori dela eta, duela zortzi urte inguru, alendu egin zen musikaren mundutik. Azpeitiarrak azaldu du jada "erreta zegoela", eta belauneko ebakuntza bat egin izana "aitzakia ona" iruditu zitzaion Kupelarekin eginiko ibilbideari amaiera emateko.

Ibilbide luze horretan, euskal erromerien panoraman gauzatutako aldaketen inguruko hausnarketa egiteko aukera izan du Berastegik. "Bere garaian" erromerietan sortzen zen giroaren faltan sumatzen du, eta kontatu du berak oso gertutik bizi izan zuela erromerien "beherakada". Aldaketa pixkanaka gertatu zela dio pandero jotzaileak: "Pixkanaka hasi ginen antzematen jendea gutxitzen zihoala, batez ere, jende gaztea. Gazteek nahiago zuten diskoteketara joan, eta horrek asko izorratu zuen panorama". Gainbehera horrek "pena" eragiten dio Berastegiri. Haren

Juan Ezenarro

- **Jaiotze data:** 1941eko urriaren 20a.
- **Ikasketak:** 12 urtera arteko ikasketak.
- **Lanbidea:** Pandero jotzailea eta artzaina.
- **Pandero jotzailea edo artzaina ez banintz...** Une horretan parean egokitutako beste edozein lan egingo nuke.
- **Lanetik ateratzean gogoko nuen...** Etxera itzuli eta deskantsatzea.



ustez, "gaur egun inoiz baino soinu jotzaile, pandero jotzaile, dantzari... gehiago daude", baina hori "ez da antzematen".

Urte hauetan guztietan musikaren munduan murgilduta ibili bada ere, Berastegik ez du uste bera musikaria denik: "Ni ez naiz musikaria, panderoa eta bateria jotzen ditut, baina nire burua ez dut musikaritzat". 2012ko San Jose trikiti jaialdian omenaldia egin zioten, esaterako, baina berak ez zela beharrezkoa uste zuen hasiera batean: "Nik uste nuen ez nuela horrenbesteko kategoriarik". Hala ere, Berastegik argi dauka asko eskertzen duela egun hartan egindako ekitaldia

eta "ederra" dela nola edo hala haren ibilbidea "aitortzea".

Egun, panderoa eta bateria lehen adina jotzen ez baditu ere, musikarekin estuki lotuta jarraitzen du Berastegik. Musika entzutea gustuko du, eta atsegin du belaunaldi berriek zer egiten duten ikustea, baita haiei "aholkuak ematea" ere, "batzuetan entzun nahi ez badituzte ere". Berririo jende aurrean jotzeko intentzioa duen galdetuz gero, argi du ez duela guztiz baztertuta ideia hori: "Une aproposa iristen bada, egingo dut; orain arte ez da egokitu, baina nork daki? Agian, laster entzungo nauzue berririo". ■■■



erreforma integralak

dica



www.urraategi.com
Alegre 37
30000 Elche

www.urraategi.com
Alegre 37
30000 Elche



Hamaika ikustekoak

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.



Sudokua

Egutegiko azken hila abendua da. Latazila edo negula ere esaten zaio. Bete itzazu hutsuneak abendua hitza osatzen duten hizkiez (A, B, E, N, D eta U). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

	E	B			N
	U				
		D		A	
	A		U		
				B	
A			E	D	



DOMINOAN

Mezua

Marrazkitxoak ezkutatzen duten esatera ezin hobeto dihoakio mutiko honi. Jarri marrazki bakoitzaren azpian bere hizkia eta osatu esatera. Erabili irudi-alfabetoa.



Bide betez, irudia margotu.



ALFABETOA



Itzala

Ez dakigu Aita Noelen laguntzaileetako bat den, ala Maripurtzil ote den, ipotekez mozarrotuta. Nolanahi dela ere, Olentzerori opari batzuk estuta alde egin du. Ikusten ari zaren itzal horietatik bakarra da zuzena. Zein da?

Bide batez, margotu ezazu zure gustura.



Engainariak

Zazpi txatal haueketik hiru ondoko irudi nagusirik hartuta daude eta beste laurak, berriz, engainariak dira. Berez itzazu.





AYESA

Erosi Laguardiako ardoa online
www.bodegasayesa.com

Edo deitu
628 87 51 24
(Patxi)

GARAGARDOTEGIKO ORDUTEGIA

ASTELEHENETIK-ASTEAZKENERA

9:00-13:00 • 16:00-19:00

OSTIRALA

TALDEENTZAKO KATAK EGITEKO AUKERA



Ordutegitik kanpo eta info gehiago:

Tel.: 644 53 42 90 •  izar_haitz • izarhaitzgaragardoa@gmail.com

Garmendipe kalea, 7, 1 ezk., 20730 AZPEITIA

Kuraia on



OIER ETXEBERRIA

Atzo pijamarekin entzuten genion irakasleari, dendetan arrabolak agortu ziren eta ogiaren errezeta buruz ikasi genuen. Gaur, gutxi-asko, bazkaritarako elkartu gaitezke, norbere taldea animatzera joan edo asteburuan elurretarako plana egin. Kontra pausoan gabiltzanean, agudo kexatzen gara (neu aurrena). Aldiz, bizitza bere martxan doakigunean, nekez hartzen dugu kontzientzia zeinen zortedunak garen jabetzeko. Akaso, inguruan ditudanek ere, beren baitan duten pentsaera da, baina alper samarrik dira une gogoangarriak kristalezko fraskoan gordeta.

Edozein egunetan egin diezaguke belaunak krak, edozein bihurtzetan irten dakioke kotxeko kultatari ke beltza. "Ongi gabiltzanean ez gara konturatzen zeinen ongi gabiltzan"; sarri entzuten den esaldia da, gehienetan anbulatorio edo beilatoki atarietan. Ez nuke istripuaren beldurrez ibili behar genukeenik esan nahi, istripurik ezaz gehixeago poztu gintezkeela baizik. Ez al da alaitzeko aski motibo gaur ez daukazula hagineko minik?

Batzuetan zoriona elkarbanatu ezin, eta hurrena berriz zeinen merke eskaintzen dugun. Oraintxe ez dugu, guk behintzat, senide gutxi batzuekin salbu, urtebetetze

eguneko telefono deirik ere mantentzen. Whatsappeko taldean norbaitek jartzen du noren eguna den, eta atzetik doakio "urte askotarako!" zaparrada bat, bere emotikono eta guzti. Pertsonalizazio maila hori bada gertukoenei opa dieguna, konponduta gaude.

Urkoaren mina ez, baina futbol taldeen garaipenak atoa geure egiten ditugu. Jaiegunak bailiran joriarekiko zorraz ospakizunetan kitatzeko. Premiarik gutxien dugunean galdetzen diogu elkarri zer moduz gauden; jada egarririk ez dugunean, irekitzen dugu txanpaina.

Goizetan irratian kolaboratzen duen amona batek aitortzen du, Jokin Altunak pilota partida garrantzitsuren bat duenean, kandela bat pizten diola Guadalupeko Ama Birjinari. Zorte on gida baimeneko azterketan! Ondo joan bekizu ebakuntza! Bidaia erosoa izan dezazula! Etxetik irtendako bakoitzean aitaren egitea erridikulizatzen dugu, baina, inporta digun norbaitek garrantzizko auziren bat

**EGURALDIAK EGITEN
BADU KLIMA, HALA
MODUZ UMOREAK
BAKOITZAREN
ZORIA ERE**

duenean, desio onaren bidez ematen diogu babesa. Adeitasun hitzokin, zerbaitetan laguntzeko. Eragin nahiz bezala, eskumenik ez daukagun ausaren gorabeheretan.

Ubuntu jatorri afrikarra duen pentsamolde edo kontzeptu etikoa da. Haren arabera, gutako bakoitza gure zirkunstantziak egiten gaitu, eta taldekide bat ezin da zoriontsu izan, gainontzeko kideak ere hala ez baldin badira. Aitzitik, muga lausoa da alaitasuna elkarbanatzetik norbere ongizatea besteei esplikatzera. Deitu irudiaren belaunaldia, bizikidetzaz lehiakortasuna edo itxurakeriaren aroa. Erakusten ez dena ez da existitzen, beraz, zoriontsu izatea ez da aski, zoriontsu zarela frogatu egin behar da.

Azterketa ongi egin baduzu, edan trago bat. Gaizki egin baduzu, edan bi trago. Ikasleen axolagabekeria dirudi, baina agian ez da horrenbeste behar irribarre egiteko. Pentsa zenbat ardo botila ozpintzen diren bodegetan, zabaltzeko egun berezi baten zain.

Eguraldiak egiten badu klima, hala moduz umoreak bakoitzaren zoria ere. Funtsean, bion artean eraiki dugun hori da gure zortea. Luze aritu gintezke ausaz eta fortunaz; zenbat eman dien batzuei eta zenbat kendu gehiagori. ■

Lehen kolpea etxean jasotako boxeolaria

TESTUA: IHINTZA ELUSTONDO

ARGAZKIAK: IHINTZA ELUSTONDO ETA

JON ARTANO IZETA

Batean eta bestean kolpeak jasotzera ohituta egoten dira boxeolariak. Aitzitik, Antton Iraetak (Azpeitia, 1951) ez du boxeoa jaso bizitza honetako zaplastekorik handiena. "Nik jaso dudako kolperik handiena ba al dakizue nork eman zidan? Aitak. Egun batean eskolatik piper egin nuen, eta gero, maisuak eta aitak topo egin zuten txikiteoan. Hark esan zion ez nintzela eskolara joan. Etxera etorri zenean, sekulako belarrondokoa eman zidan. Oraindik ere ederki gogoratzen naiz".

"Gizon serioa" zen Iraetaren aita, eta era batera edo bestera, hark baldintzatu zuen semearen ibilbidea. "Nik boxeoa aritu nahi nuen, baina aita zenak ez zidan uzten", dio. Ez, ordea, kirol hori gustuko ez zuelako. "Berari ikaragarri

gustatzen zitzaion, baina ez zuen nahi ni boxeoa aritzea. Ez dakit zergatik". Oztupo horren aurrean, beste hainbat kirol probatu zituen Iraeta gazteak: bizikleta, motokrosa... "Bizikleta gustatzen zitzaidan gehien, baina nire gorputza handi samarra zen bizikletan aritzeko. Futbol zelaia ere etxe ondoan neukan, baina futbola ez zitzaidan gustatzen. Orduan, motokrosa probatu nuen, eta horretan aritu nintzen".

Gaur egun Garmendipe futbol zelaia dagoen inguruan jaiotakoa da Iraeta; zehazki, lehen Ondarbide taberna zegoen eraikinean –egun kebab jatetxe bat dago bertan–.

**"USTE DUT ONENEAN
UTZI NUELA. ORAINDIK
BANUEN MAILA ONEAN
JARRAITZEKO
GAITASUNA"**

Azpeitiar-azpeitiarra da, beraz, nahiz eta azken 40 urteetan Donostian bizi den. Haren benetako afizioak eraman zuen hiriburura. "Soldaduska amaitu nuenean, aita hil egin zen, eta orduantxe erabaki nuen boxeoa hastea. Azpeitian ez zegoen horretarako aukerarik, eta Donostiara joan nintzen". Donostiara ezkondu zen, eta ordutik ez da gehiago Azpeitian bizi izan. Gaur egun, gutxi etortzen da sorterrira, "enkarguren bat egitera-edo baino ez".

Dena den, Donostiara joateko erabakia hartu aurretik, Azpeitian ere egin zituen boxeo entrenamendu batzuk. "Beixama udaltzainarekin hasi nintzen ikasten. Boxeolaria izandakoa zen, eta harekin ibiltzen nintzen, Azpeitiko futbol zelaiko aldageletan". Gero, beste azpeitiar batekin ere



topo egin zuen kirol ibilbidean: Jose Mari Unanue *Muxugorri* izan zuen manager.

Amateur gisa saio batzuk egin ostean, 1980ko urtarrilaren 6an egin zuen debuta boxeolari profesional moduan Iraetak, 29 urterekin. Guztira, hiru urte eta erdi egin zituen profesioaletan, eta 31 lehia jokatu zituen ibilbide horretan. Jendeak pentsa dezakeenaren kontra, gimnasioan baino, lanean zaildutako boxeolaria zela dio. "Aitak pentsu biltegia zeukan, eta han ibiltzen nintzen, zakuekin batera eta bestera. Horrela indartu nintzen ni; sekula ez dut hartu pisu bat giharrak egiteko". Profesioaletan aritu zen hiru urte eta erdi horietan, baina, gainontzeko lanak albo batera utzi eta boxeoari eskaini zion lanaldi guztia. "Egunean zortzi ordu entrenatzen nituen: goizean eta arratsaldean launa".

Boxeolari ona izateko, gogor entrenatzeaz gain, zenbaitek pentsa dezake odol beroa beharko dela. Dena den, kontrakoa adierazi du Iraetak: "Hori da kirol honetan izan daitekeen akatsik handiena". Haren arabera, burua da garrantzitsuena. "Aurkaria ondo aztertzea da gauzarik inportanteena, nire ustez. Estrategia izan behar da, arratoia". Bera zer-nolako boxeolaria zen galdetuta, argi dio: "Kabroia. Teknikoa ez nintzen ni, baina indarra nuen, eta sekulako barrabilak". Metro eta 80 zentimetro altu den arren, "boxeorako txikia" zela adierazi du. "Horregatik, neure estrategiak nituen".

Kirol arriskutsuaren fama izan dezake boxeoak, baina hori ere ez dela horrela dio Iraetak. "Bai zera! Ondo entrenatzen baduzu, ez daukazu arriskurik. Motoarekin istripu bat izatea bezala da;

gerta daiteke, baina ondo ibiliz gero, arrisku hori saihesten duzu". Hark ez du sekula "aberia handirik" egin boxeoan. "Oraindik sudurreko hezurra nirekin daukat. Boxeolari askori puskatu egiten zaie, eta kendu egin behar izaten dute. Baina nik hemen daukat oraindik", esan du sudurra seinalatuz.

Hamaika anekdota

Boxeoaren eskutik, hamaika bizipen gorde ditu Iraetak oroitzapenen tiraderan: Londresko Olinpiar Jokoetan aritzeko aukera izan zuen, baina ez zen joan; Pantera Rodriguez Espainiako Txapeldunari irabazi zion Bilbon; Italiako lehia batean korrika irten behar izan zuen ringetik... Ez zaizkio amaitzen hango eta hemengo kontuak.

Dena den, azken anekdota hori ondo azaldu nahi izan du. "Donostiara etorri nintzenean,



Antton Iraeta, egungo eta aspaldiko argazki banatan. JON ARTANO IZETA



Iraeta, Donostiako Errotaberri auzoan. Han bizi da egun. IJINTZA ELUSTONDO

Paco Bueno boxeolari ohia ezagutu nuen. Hark hainbat aholku eman zizkidan, eta honako hau izan zen horietako bat: 'Boxeo saioaren hasierako kanpaiak jotzen duenean, aurkaria agurtu ohi da, baina kontuz! Norbaitek agurtu beharrean kolpe egingo dizu eta'. Kanpai hotsak eman ohi dio hasiera lehiari, eta behin soinu hori entzutean, libre da aurkaria jotzea, nahiz eta ez den kirol horretan ondo ikusia, inolako ikuskizunik gabe amaitzen delako saioa. "Ez da etikoa". Italiako lehia hartan, Buenoren esanaz gogoratu eta horixe egin zuen Iraetak: agurreko unean, aurkariari kolpe egin. Baina lasai-lasai gelditu ez, eta korrika ihes egin behar izan zuen ringetik. "Kobratu ere egin gabe alde egin nuen Italiatik". Hala eta guztiz, handik denbora batera, Italian beste lehia bat jokatzeko aukera suertatu zitzaion, eta orduan kobratu zuen aurrez kobratu gabe utzitakoa. Orduan ere, ez zegoen lasai-lasai, nonbait.

"Barrabiletako babeskian dirua sartuta igo nintzen ringera".

Boxeoaren bueltan, kirolari lotutako balioak ez ezik, bestelako mundu bat ere sortzen zela oroitu du Iraetak. "Festa eta dirua mugitzen zituen boxeoak. Orduan ondo irabazten zen boxeoan; diru aldetik, haiek izan ziren nire urterik onenak". Boxeoaren bueltako mundu ilun hori ezagutzeko aukera izan zuela adierazi du. "Las Vegasera [AEB] eraman ninduten behin, eta zera esan nuen: 'Ni hona ez nator gehiago'. Tentsio handia zegoen, interes asko... Ahalegina egin nuen mafia mundu horretatik pixka bat aldentzeko".

Profesionaletan debuta egin eta hiru urte eta erdira utzi zuen boxeo Iraetak. Dena dela, damututa dago kirol hori azkarregi utzi izanaz. "Ezkonduta egin nintzen, eta... Etxe aldera gerturatzea tokatu zitzaidan". Beste bizpahiru urtez jarraitzea gustatuko zitzaiokeela onartu du. "Esperientzia nuen, eta uste dut onenean utzi nuela.

Oraindik banuen maila onean jarraitzeko gaitasuna".

Penak pena eta damuak damu, ordutik ez da boxeoan aritu Iraeta. Kirolari profesionala izateari utzi zionetik, bestelako hainbat gauza probatu ditu, ordea: baserriz baserri kamioiarekin esnea biltzen aritu zen, Aldalur autobus enpresan lan egin zuen, Hernaniko (Gipuzkoa) autobusa gidatzen aritu zen, jubilatuta ostean Ekuadorren dantzaleku bat kudeatu zuen, Oiartzunen taberna bat izan du orain gutxira arte, sagardotegi bat ere bai Usurbilen (Gipuzkoa)...

Boxeo ez bada, lana edo negozioa. Argi dago Iraeta ez dela geldirik egotekoa. Hil honetan 70 urte beteko ditu, eta planak eta ametsak ez ditu falta. "Pentsa zer diren gauzak: lehen ez nuen nahi izaten ozeanoa gurutzatzea, eta egun, Dominikar Errepublikara joaten naiz". Aurki hara joateko asmoa du, eta Euskal Herrian bezalaxe, seguru han ere asmatuko duela zer egin. ■■■



erreforma integralak

dica



www.urragitec.com
Alegre 37
30000 Llanos
Avenida 8
30120 Alacena

Gure bidezidorrak



MIREN SEGUROLA

Batean eta bestean gurasoekin hitz egiten hasi, kezka entzun, galderak egin, eta sintomak gero eta agerikoagoak dira: udalerririk euskaldunenetan ere seme-alabak geroz eta gehiago erdaraz ari zaizkigu aisialdian, barra-barra, inolako erreparorik edo kezkarik gabe, naturaltasun osoz. Musika entzuterakoan, filmak edo telesailak ikusterakoan, sare sozialetan, komikiak irakurtzerakoan edota gustukoenak dituzten youtuberrei begira ari direnean, gaztelera da nagusi, nabarmen, ingelesaren edo beste erdara batzuen oso gainetik. Euskara bera ere, gehienetan, bigarren mailakoa da, alde handiz.

Azpeitian, Azkoitian, Zestoan, Errezilen... Berdin dio non. Kalean oro har euskara gailentzen den herrietan ere hori da errealitate gordina. Nerabezaroaren atarian, Tik Tok eta Twitch bihurtu dira gaur egun haurren sare gustukoenak. Lehenengoan, erdarazko abestien inguruko dantzak edo segundo apurretako bideoak osatzen dituzte. Bigarrenean, edozein gairi buruz solasean aritzen dira, zuzenean, eta arrakastatsuenak bideojokoen partidak komentatzen dituztenak dira oro har. Sare batean zein bestean, erreferentzia gehienak erderazkoak dira. Horiek dituzte gustukoenak gure seme-alabek.

Noraezean eta nahikoa etsita gabiltza gurasoak, zertan huts egin dugun ulertu ezinik. Belaunaldi aldaketaz eta euskararen egoeraren inguruko kontzientzia faltaz hitz egin daiteke, baina argi dago ertz asko dituela gaiak. Izan ere, udalerrri euskaldunetan haurrek eta gazteek naturaltasunez jaso dute euskara etxean. Euskararen arnaguneak izan dira gure herriak. Baita Azpeitia ere. Baina alor batzuetan ihes egiten digu emariak, erdaren korronteak eraginda. Erauntsia etenik gabea da pantailetan. Youtube. Tik Tok. Twitch. Netflix. Disney+. HBO. Movistar+ eta abar heltzen zaizkigu eskura, etxeko sofarraino. Baina euskara ia ikusezina da horietan. Erdaren eraginez, erreferentzia kulturalak beste herrialde batzuetakoak dira, eta horrek egundoko eragina du gero gure seme-alaben hizkuntza ohituretan eta hizkuntza hautuan. Dagoeneko baita Azpeitian ere. Urteak eman ditugu lan eta lan, euskara biziberritzeko ahalik eta lan eraginkorrena egiten. Baina egiturazko erabaki sendorik ezean edota ikus-entzunezkoen edukiak arautzeko euskararen aldeko lege zehatzik ezean, bidezidorrak izango dira gure ahalegin guztiak, erdarentzat abiadura handiko autopista zabalak ditugun bitartean, egongelako sofarraino sartuta. ■■■

**NORAEZEAN ETA
NAHIKOA ETSITA
GABILTZA GURASOAK,
ZERTAN HUTS EGIN
DUGUN ULERTU EZINIK**

ZUZENEKO EKITALDIEN EMISIOAK STREAMING BIDEZ

Bezeroaren webgunetik edota
gure hedabideen bitartez

**EKITALDI EDO SAIO
BEREZIREN BAT
ANTOLATZEKOTAN BAZARA,
HEMENTXE GAUDE,
BERTAKOAK GARELAKO**

943-81 38 41

gukazerbitzuak@ukt.eus

GUKA
ZERBITZUAK

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputazioa Pasa
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro**

TicketBAI

Etorkizunerako prestatzen.

2022an, **TicketBAI** Gipuzkoara
iritsiko da. Etorkizunerako
prestatzen gaituen online
fakturazio-sistema berria.

**Anima zaitez zure enpresan
edo negozioan borondatezko
epean ezartzera eta ezagutu
kenkariak eta abantailak.**


Informa zaitez

- gipuzkoa.eus/ticketbai
- Aurrez aurreko informazioa (hitzordua)
- 943 113 000
- ticketbaikontsultak@gipuzkoa.eus



TicketBAI
GIPUZKOAN | EN GIPUZKOA

gipuzkoa.eus/ticketbai



OPARITU TOKIKO INFORMAZIOA



bazkide@ukt.eus

B
BALEIKE

K
KARKARA

erlo
ERLO

✻
MAXIXATZEN

**U
K
H**
UROLA KOSTAKO
HITZA

**U
U**
UZTARRRIA

**Z
H**
ZARAUZKO
HITZA



Kanpotik ikusten direnak

Txikiak, handiak, zaharrak, berriak, arruntak edo bereziak, hormen ahoak eta begiak. Leire Larrañagak herriko hainbat ate eta leiho jasoak ditu argazkietan eta horietako batzuekin osatutako bilduma da honako hau.

Testua: **Mailo Oiarzabal**. Argazkiak: **Leire Larrañaga**.



GARDENA

Egurrezko hezurdura xumea eta burdin sarea, baratzerako eta atzeko etxola sendoagorako sarrera, bi aldeetara hedatzen den burdin sarearen erdian. Gordetzeko zerbait bai, baina ezkutzeko ezer ez du parrokia atzean Txaribarko Errebala eta Soreasu auzoa lotzen dituen bidean dagoen ate honek.

DENBORAREN LORRATZAK

Harrizko murraren gris iluna kolorez argitzen du egurrezko ate berdeak Loiolan. Ez da sartu-irten askoren pasabide diren horietako bat, tarteka baino irekitzen ez duten horietakoa baizik, irekitzen badute. Aspaldian zaintza handirik ez duela jaso antzematen zaio, berdea kolorgetuta eta barren aldea hezetasunarekin ustelduta.



UTZITAKOA BIZIRIK

Urolako Tren zaharraren Loiolako geltokia izandakoaren ateetan eta leihoetan ere agerikoak dira denboraren lorratzak. Hortzak falta dituen ahoa dirudite atearen goiko aldeko kristaletako hutsuneek, eta keinua botatzen ari dela dirudi leihoak. Utzitakoaren zantzuen artean, ordea, bizi zantzuak erakusten ditu atearen kontra bermatutako bizikletak.



BIZI DIRENAK

Leiho atzeetan bizi direnen eta bizirik dirauten leihoen seinale dira sarri esekitako arropak. Madalenako etxe honetan lehorrak aireztatzera atera dituzte batzuek, eta garbitu berriak eguzkitan lehortzera besteek.

ITSU ETA MUTU

Loiolako baserri bateko pareta zati honetan, bi leiho ziren tokian bakarra gelditzen da bere horretan. Behekoa erabat itsu eta mutu utzi zuten, paretarekin bat eginez, behin izan zenaren orbanak han dirauen arren. Goikoak eutsi egiten dio, lausotutako begi bakarraren pare bada ere.





BEGIAK HORMA IRUDIRA

Zaharkitutako eta utzitako industria eraikin horietako bat, Landetan. Itxuraz aspaldi ireki gabeko atea eta bi leiho; eskuinekoak ez bezala, ezkerrekoak kristal guztiak osorik mantentzen ditu burdinezko babesaren atzean. Ate-leiho goibetara baino, gisa bereko paretak ziprizatzen duten margo eta zirriborroetara jotzen du begiak.



NORAKO?

Santutxorako eskaileretan gora, metalezko baranda eteten du erdibidean zurezko atexka honek. Argazkian ageri den gisan, atea apaingarri bitxia dirudi, baina badu beste eginkizunik, baratze bateko sarrera baita.



BERRIENA

Olazko Andre Mariaren plaza eta Etxe Alai lotzen dituen da Azpeitian kalean jarri zuten lehen igogailua, eta bilduma honetako aterik berriena ere bada igogailu horrena. Metalezko eta kristalezko egiturarako sarrera dotore ageri da argazkian zuhaitzez eta zuhaixkez inguratuta. ■■■

SOKA LUZEAN



JANIRE ALKORTA

Bide berdeak, ondorio berak

Pi-pi-pi. Jantzi, gosaldu, hortzak garbitu eta etxetik ateratzera noa.

Organikoaren zabor ontzia beteta dagoela ohartu naiz. Poltsari tira egin, eta pam! Kaka, berriro apurtu zait poltsa. Baina zertaz eginik daude poltsa madarikatu horiek?

293/2018 lege dekretuaren arabera, 2021eko urtarrilaren 1etik debekatuta dago kontsumitzaileei konpostagarriak ez diren poltsak banatzea, ordainduta edo ordaindu gabe. Ordura arte, petroliotik eratorria den polietilenoazko (polimeroak: molekula txikiz –monomeroz– osatutako masa molekular handiko makromolekulak; etilenoa: hidrokarburu asegabea) poltsak bildumatzen genituen gure etxeko armairuetan. Polietilenoak propietate mekaniko onak eta ekoizpen merkea izan arren, haren bizitza ziklo luzea eta birziklatze tasa baxua medio, haren erabilera murriztu egin nahi da.

Egun janari dendetan aurki ditzakegun poltsek fekula (almidoia) dute jatorrian. Fekula eta almidoia gauza bera dira, baina jatorriaren arabera, modu batera edo bestera deitzen zaie: zerealetik (hazietatik ateratzen denari) eratorria bada, almidoia, eta tuberkulu edo errizomatik (lur azpian dauden organoetatik), fekula. Almidoia glukosa molekulaz osatua dago, eta landareen erreserba energetikoa da. Almidoiaren garrantziaz ideia

bat egin dezazuen, gizakiak kontsumitzen dituen karbohidratoen %70 dira almidoia. Poltsak ekoizterakoan, almidoian aberatsak diren produktuetatik (patata gehienbat) almidoia ateratzen da. Patatak duen almidoi edukia %20 da, eta horietatik %25 amilosa (lineala) eta %75 amilopektina (adarkatua, saretua) dira. Ezaugarri fisiko-kimikoak medio, amilosa da almidoiaren zatirik baliagarriena zabor poltsak ekoizteko. Poltsen propietateak hobetzeko, azken urteetan materiala hainbat tratamendu fisikorekin, kimikorekin eta biologikorekin eraldatu da. Hobekuntza kontuan hartzekoa izan arren, almidoizko poltsek, polietilenoazkoekin alderatuta, propietate mekaniko eskasak dituzte. Gainera, Deborah Garciak dioenez, poltsen produkzioarako patataren %6 bakarrik erabiltzen dela kontuan hartuta, patata kantitate erraldoiak erein beharko lirateke, horrek ekarriko lukeen deforestazioarekin. Beraz, poltsa horiek ere ez dira saltzen diguten bezain alternatiba ekologikoa.

Ez omen dago ikusi nahi ez duena baino itsuagorik, eta horixe bera izango da guri gertatzen zaiguna. Saiatzen gara (dira) guztiaren gainetik alternatiba 'berdeak' aurkitzen, baina gaur-gaurkoz, ez dago kontsumo eredu eta erritmo honi eutsiko dion bide paralelorik. Gure bizitzeko modua aldatzea ote bide bakarra? Has gaitezen ba! ■■■

BOTEPRONTOAN



IGNACIO ARAKISTAIN

Maleta (des)egin

Elementu preziatuak dira maletak. Bizipenen testigu, une errepikaezinen gotorleku. Pertsonen gisan, mota ugaritako maletak aurkitu ohi ditugu aireportuetako zinta garraiatzaileetan. Handiak zein meharak, erraldoiak ala eskuko ñimiñoak. Espazioa optimizatzeko sortuak, *vintage* erara diseinatuak ala daramatena agerian geratu ez dadin giltzapetuak. Bi jende multzo bereizteko ere balio dezakete maletak: batetik, patxadaz bertan zer sartu erabakitzen dutenak daude, premiazkoa ez zaiena lurrean utziz eta aireratuko dena tentuz aukeratuz; eta bestetik, presaka eta boteprontoan armairua aztoratu eta segundo batzuen bueltan ipurmasailen indarrez maleta ala moduz ixten dutenak. Jabeen ispilu anitzak, joan-etorriek maiztuak, bereziak denak.

Egun gutxi barru trasteak hartu eta mudantza egitea egokitzen zait. Maleta ganbarako lozorro gozotik gantzeak sentimendu kontrajarriak pizten dizkit. Hastear den etapan bidaide izango ditudan gauzak hautatzeak gerturatzen naute bizileku berrira, baina nostalgia ere eragiten dit armairu hutsa atzean uzteak. Maleta (des)egitea egokitzen zait. ■■■



TiEN21ESNAOLA

ZATOZ
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943-08 03 55 · esnaelek@outlook.com



TicketBAI

FAKTURAZIO SOFTWAREA

Irtenbide pertsonalizatuak,
prezio egokituak



www.softekin.com

FAKTURAK EGITEN BADITUZU, BEHARREZKOA DUZU